


Basilio Pujana

Oiuak



Oiuak

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tel. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Basilio Pujana

Oiuak

Auspoa Liburutegia
(1997)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-60-7

Legezko Gordailu: S.S. 1210/97

Azken arnasara arte

NIK lenengoz entzun neutsien bertsolariak izan ziran Esteban Uriarte, Dimekoa semez, ezkondu ta gero Bermeon bizi zana, eta Kepa Enbeita, Zeanuriko plazan, Agoztuko Andra Mari jaietan, 1927-an edo olan uste dot.

Egun atan izan zan antziñako eztegu zarraren erakusketa. Aldi atan ni mutiko nintzan, baiña agure jantzita joan nintzan Mateo Gordoren arropakaz, oso txukunak eta txaleko botoi kaskabeldunak; eta ezteguaren amaieran izan ziran len aitatu-tako bertsolari biok.

Aldi atan ez zan usu bertsolari bik baiño geiagok kantatzea. Bearbada izango zan bertsolari gitxi egon ziralako.

Izentatutako biek egin eben ekitaldia, eta ekitaldi orretan aitatu eben, beste askotatik, zenbat seme-alaba euken bakotxak. Enbeitak esan eban ez dakit zenbat, eta Uriarteren erantzuna:

– Egingo neuke juramentu, seme oitatik bat baietz egin Aite Santu.

Eta Enbeitak onela asi eban erantzuna:

Juramentuak geldi-geldikan
au berba astuna da ta.

Eta orrela jarraitu eban. Uriarte zirikatzailea zan, baiña zorrotza be bai; bertsolari txirpia. Enbei-

ta, barriz, bestalde, sakona ta serioa. Orregaitik, niri beintzat berea sartu jatan belarritik biotzeraiño, eta gaur arte emen daukat.

Orduko bertsolariak alkondara zuria goraiño, samaraiño, loturik eukela asten ziran kantatzen. Baiña, lenengo bertsoa kantatzean, goiko botoia askatzen eben. Zeremoni bat zan ori.

Euran saioaren ostean, ordurako be baneunkan lez bertsoaren izpia, eurak amaitu ta gero bertan kantatu neban nire lenengo bertso-antzeko bat:

Ez dakit erderaz ta
ta gitxi euskeraz,
eta emen nago laro-
getabost urtegaz.

Agure jantzita nengoalako izan zan ori.

Gero, errepublika etorri zanean, asi ziran batzokiak zabaltzen; eta, Zeanurikoa inauguratu zanean, ekarri eben Enbeita bere seme Sabinekin.

Aldi atan, Sabin geiago entzuten zan, Arrati aldean beintzat, Balentin baiño. Neuk Balentin eneban ezagutu gerra ostera arte. Gero Sabin isildu zan eta Balentinek ekin eutsan jo ta ke, bertsolari ospetsua egin arte.

Nik Sabinekin eneban egundo bertsoan egin, eta bai Balentinekin ainbat bider. Ondo konpontzen giñan.

Len esan dodan lez, Zeanuriko batzokiaren inauguraziñoko egunean izlariak izan ziran Lauaxeta eta Polisene Trabudua, aldi atako izlaririk oneitako bi.

Baita kantatu gendun Jose Mari Artetxek eta nik be; eta Bilboko *Euzkadi* egunkarian agertu zan Lauaxetak esan ebana: bertsolari-promes onak giñala.

Ortik aurrera ezin burutik kendu bertsoaren doiñua beintzat, eta *sirrist* eta *sarrast* eldu naz gaur arteiño.

Aldi atako plaza-bertsolariak, zerbait entzuten ziranak, Euskal Erri guztian be dozen erdi bat izango ziran, ez asko geiagorik: Bizkaian Kepa Enbeita ta Uriarte; Gipuzkoan Basarri, Uztapide, Zepai eta besteren bat, azpeitiarra uste dot, Txapel.

Onein aurretik beste on asko zegozan istorian zear leku guztietan, batez be Gipuzkoan, bertsolari ospetsuak. Baiña, Txirrita kendu ezkerro, nik neuk enebazan ezagutu. Txirrita ikusi neban bein Urkiolan.

Gaur egun, bertso-saio baten, zorionez, lau, bost edo sei bertsolarik artzen dabe parte. Aldi atan, tamalez, leen esan dodan bezela, geien agertzen ziranean, bi alkarrekin; eta sarri askotan, Kepa Enbeitari jazotzen jakon moduan, bakarrean.

Orrela jazotzen zan bertsozaleakaz, eta nigaz be bai: non izaten zan bertsolaria, ara joaten giñan entzutera, Erromako Aita Santua sermoi egitera etorri balitz antzera.

Nik Kepa Enbeitagandik artu neban nire barruko beroa, euskaldun batzuek ulertu ezin daben bertsoaren aparteko sua; eta sarri parabolaren antzera emoten dabe epai.

Bai; neuk amagandik artu neban bere bularretik bertsoaren bateoa. Baiña sendotza, Kepa Enbeitagandik.

Nire errian, Zeanurin, entzun neuntsan iru edo lau bider, eta beste bein Bedian, bertako batzokia inauguratu zanean, 1933-an. Bedia ontara bizikletan joan nintzan, nitzako beintzat akontezimientu andi bat zala ta.

Zori onez, orrela emon dau bertsoak frutu ona



Basilio Pujana

Ni nire errian ezagutu ninduenean zerbait izan neitekela, baneukan laguntasuna bertsoan jarraitzeko. Zurrumurru bat eldu zan nire belarrietaraiño: Zeanuriko jaun batzuek, bertsozaleak eta bertsoa zer dan ondo ausnartzen ebenak, aitatu ebela, Keparen ondoan edo inguruan ibili naiten, bere etxera morroi edo olan bialtzea. Baiña or gelditu zan.

Eta, aldi atan iñon ezer ezin zan lez ikasi fraile edo olan joan izan ezik, or gelditu zan guztia nire arduran; eta gero, etorri ziran laiño baltz, trunboi eta kaiñonazo artean, gaur arte egin dodana baiño ez dago, baiña jakin daitela zer jazo dan edo jazo zan.

Orduko jendeak Kepa Enbeitari entzuteko eukan gogoa, Mesias mundu onetara etorteko zanean eta etorri zanean erriak eukan guraria bezela, bere dotriña ekarteko zanean. Orrelan egoten giñan asko Keparen abotsa ta bere bertsoa entzuten, esaten eban guztia zalako justizia ta askatasuna. Ni, beintzat, eta beste asko be, pentsatzen egoten giñan izar bat baegola guri argi egiten. A zan aurrera jarraitzeko indarra.

Keparena zan, esaten dan lez,
urretxindorren abotsa,
biotzeraiño sartzerakoa
oiñeztua lez zorrotza.
Errazoi eta egien alde
etzan izan iñoz lotsa,
eta orrela itxartzen eban
euskaldunaren biotza.

Nire adiskide Abel Muniategik, alkarrekin eginiko azken aldiko berbaldi baten, aitatu eban gazte denboran gaur lako serioa edo sakona enintzala izango; eta nik erantzun neban:

– Orduan, gazte denboran, berde; eta zartzarotan, eldua.

Eta, bestetik, bertso arloan neunkan zorra ordaintzeko al dodan guztia saiatu bear nebala azken arnasara arte, niri eginiko omen baten promes egin nebalako:

Umetxotatik gure bertsoa
beti izan neban maite,
baiña egundo be ez naz izan
omen bat artzeko beste.
Nik gaur egin dot omena artu
ta betiko zorrez bete,
anai-arrebok, biotzez diñot
ta or ziur egon zaitezte,
zor au ordaintzen saiatuko naz
azken arnasara arte.

Au zan esker emonez kantau neban bertsoa. Bearbada, Muniategi be gogoratuko da, bera izan zan neu aupatu nindutenetariko bat eta. Eta oraindiño zor au ordaintzen nago, Jaunari esker.

Bertso-paper sariketa bat izan zan, 1963-an Gipuzkoako Aurrezki-Kutzak antolatua edo bai beintzat berak babestua Euskaltzaindiagaz, eta lau sari izan ziran: 2.000 pezeta lenengoa, 1.500 bigarrena eta 1.000 irugarrena, gipuzkoarrak irabazi ebezanak. Eta laugarrena 500 pezeta, eta orretan neu izan nintzan irabazlea, Gipuzkoatik kanpoko lenengoa.

Orixe da orain, al dodan arte, nire egin bearra; eta egin bear orrek bultzatuta nabil ni al dodana egiten.

Nire bete bearra au izan ez balitz, bearbada eneban egingo egin dodan apurra be; eta, nire lan pobre au erriarentzat zerbait ona bada, niretzat be bai, ta guzientzat obeto.

Nire bertso ondakiñak

- 1 Amasei urtez egin nebazan
nire bertso esamiñak,
eta gaur arte bera indartzen
egin dodaz alegiñak.
Naita askorik ez dau balio
nire bizitzan egiñak,
liburu ontan jarri nai dodaz
nire bertso ondakiñak.
- 2 Bertsoa maite izan dot baiña
benetan nire bizitzan,
nire aldian kantatuteko
erreztasun asko etzan.
Ezin izan zan kantatu eta
orduho bertsolaritzan,
laiño baltzetan galdu ez daiten
idaztera jarri nintzan.
- 3 Jakin guztiok ez daukadala
eskoletan ikasirik,
pentsamentuak azaltzeko be
ez dot patxada andirik.
Borondatea bakarrik daukat
al dodana egin nairik,
bada mundu au ez dot nai itxi
al dodana egin barik.

4 Bertsolai zarrak kantatzen gendun
geure euskera garbian,
gaurko gazteak kantatzen dabe
euran euskera barrian.
Euskera ori sartu ez arren
zoli gure belarrian,
batez be ondo sartu dedilla
gogotsu gure errian.

Lazkao-txiki zanari

- 1 Lazkao-txiki zan Lazkaon jaioa,
iñon bez azitakoa,
zabala etzan eta alturan
metro eta erdikoa.
Gizontasunez ain zan aundia
neurtu be ezindakoa,
milla bertsogaz aupatuta be
ez da jasoko naikoa.

- 2 Igarlearen maillako ziran
bere bertso nai txisteak,
entzuleentzat alaiak kantau,
barruan gorde tristeak.
Bera samiñez aurkitu arren
asko alaitu besteak,
santu andien neurria dauko
olakoa izateak.

- 3 Lazkao-txiki joan zan baiña
gogoan dogu sarriten,
bada alako gizon argiak
egundo ez dira ilten.
Batzuek diñoie goian dagola
izar andien argiten,
baiña nik diñot bera dagola
izarrai argi egiten.

- 4 Sarritan nago begira adi
goiko izarretarantza,
zein izarrekin argitu ete zan
munduan zure jaiotza.
Lau aixetatik dabil betiko
kantari zure abotsa,
au isiltzeko ez da naiko ta
munduan dan eriotza.
- 5 Gure erriak lenagotik be
oso argi onak ditu,
ta orain barriz zorionean
Lazkao-txikirena piztu.
Gure bidea badaukagu be
aldatz gora eta estu,
Jaunari esker argi dogu ta
badogu nondik jarraitu.
- 6 Berak eukazan doiak zirean
normaletik aparteko,
borroka eukan gizona zer dan
ta gaiñera zertarako,
mundura nondik datorren eta
gero mundutik norako.
Ola sinisten daben gizonak
eriotzarik ez dauko.
- 7 Zeru goietan ikusten dira
izar ederrak dizdira,
eta jartzen naz adi-adirik
ni zureari begira.
Zure izarra aupatuteko
nire indar danak dira,
baiña nik ezin iñoz goratu
merezi dozun tokira.

8 Gauza bikain bat aitatutean
diñogu urre gorria,
baiña zu lako balore batek
bear dau izen barria.
Esango neuke zeu ziñeala
apartetik etorria,
bada munduan ez da agertzen
zu neurtuteko neurria.

9 Jakitun batzuk dudan daukaguz
or bide-kurutze baten,
mundu ontatik urten ezker
ezer ez dala esaten.
Lazkao-txikik etzun dudarik
duda au erabagiten,
bere jokera ikusirikan
zerbait badago nonbaiten.

10 Samiñez nago irakurririk
Lazkao-txikiren eskela,
gaur nok osatu ez daukagu ta
au mundu erdi ustela.
Zeruko Aita, otoian nago
kendurik nire txapela,
eskari au da: Lazkao-txiki bat
barriro sortu daitela.

11 Ze eratako gizona ziñan
bertsoz ezin esan leike,
gure erria askatu daiten
beti justizia eske.
Naita biotza samiñez euki
eta gorputzean neke,
erri ta lagun urkoen alde
zu beti ziñan jo ta ke.

12 Ez dakit zer esango leukien
len bertsolari ziranak,
baiña ez dakigu zer esan bere
berakin izan giñanak.
Parabolaren antzeko ziran
sarriten bere esanak,
gizon leun eta jakitunak be
neurtu ezin leikezanak.

Bizkaiko gotzaiña

- 1 Gure Bizkaian bear genduan
Elizarako gotzaiña,
eta kanpotik etorri jaku
emen bageunkazan baiña.
Elizan bere sartu diran lez
Euskadi eta Espaiña,
joko orretan ikusten dogu
politikaren usaiña.

- 2 Gure erria beti izan da
kristautasunez beroa,
ta bero orren bultzakadeak
au esatera naroa:
maliziakin egiten danak
bide onik ez daroa,
ta begiratu zer izango dan
bide txarraren geroa.

- 3 Orain gotzain bi aurkitzen dira
emen obispadu baten,
bata daukagu euskalduna ta
bestea orain ikasten.
Bien artean Bizkaiarako
naiko ez badabe egiten,
frantzes bat edo beste ekarri
irukotxa izan daiten.

- 4 Oraindik urte asko ez dala
begiratuz atzerantza,
obispo batzuk itxi euskuen
usain txarra edo atza.
Izurratuta oraingo ontan
gagoz kokotean azka,
ta kanpokoia bear badogu
ekarri Kongoko baltza.
- 5 Euskal Erria beti izan da
gogorra baiña apala,
Jesukristoren lege barruan
biotz ta esku zabala.
Baiña badatoz azpikerakin
egiñazoten *trágala*,
aurreragotik jakin daiela
alperrik izango dala.
- 6 Kanpotar eta mundu guztiaz
jakin bear da konpontzen,
baiña batzuen jokaeragaz
gagoz konfiantza galtzen.
Lendikan emen dagozanokin
ikasi dogu alkartzen,
txarrenak dira daukaguzanak
erriz kanpotik agintzen.
- 7 Euskal Errira sartu ziran lez
otsoak bildots jantzita,
idurimenez artzen dogu gaur
kanpotarraren bisita.
Iru zakugaz gagozan legez
lendikan izurratuta,
orain egia badiñosku be
gagoz ezin sinistuta.

- 8 Eneuke gura bein jazo zana
esaten ekin ta ekin,
baiña baten bai esan bear dot
danak egin daien jakin.
Espaiñiako obispo batzuk
portatu zirala zikin,
eta tamalik andiena zan
goragokoak eurakin.
- 9 Gure Jesusek apostolui
agindua au izan zan:
"Nire dotriña danai zabaldu
ta danai euran izkuntzan".
Baiña guztian borrokalari
garala ez daien esan,
Kristok esana bete daiala
ta ortaratu gaitezan.
- 10 Gotzain jaun oni jazotakoa
da gauza bat gogorrena,
Euskadirako ez dakiala
gauza bear-bearrena.
Eta bestetik bete bearra
goitik datorren ordena,
naita errudun ez da izaten
aginduta datorrena.
- 11 Kristau dotriña egin zanean
gure Euskadira sartu,
bera zalako akatsik bako
bertan egin zan onartu.
Orain batzuek obetu naian
zerbait gura dabe nastu,
guk ez dogu nai oberik eta
lengoaz daigun jarraitu.

12 Atxaki bako argia dogu
Jesukristoren dotriña,
Kristo bera be Jainkoa da ta
ori da berak egiña.
Orain jaun batzuk egiten dabe
aldatuten alegiña,
ondo dagona aldatu naia
ez al da joko zikiña?

13 Euskal Erriko dotriña dogu
Kristo beraren antzeko,
eta ez dago besterik iñon
Kristorena obetzeko.
Orain jaun batzuk artega dabiz
euran erara sartzeko,
borondatea ona badabe
itxura onik ez dauko.

14 Euskal Errian lendik daukaguz
eliz jakitun ugari,
irakasteko nondik jarraitu
zuzen erritar danari.
Maixu barriak ipinitea
len ondo dakianari,
arraioa!, nik ez dot ikusten
orren argi dagon ori.

15 Kristo izena entzun bakoak
gaur ei dira urrintan,
au olan bada badago lana
oraindik arlo orretan.
Ta obispoak ona bialdu
naikoa eukita bertan,
ori ez dago ain garbi eta
ez gagoz ados orretan.

- 16 Berba on asko aolan dala
kanpokoia sarri dator
geuri esaten: "Zoriona ta
bakea iskintzen nator".
Baiña errian lendik badoguz
gizon argitsu ta jator,
kanpotarrikan ez dogu bear
bide onez ez badator.
- 17 Europa aldean Euskadi dan lez
bearbada biurrena,
obispoak be ementxe dauke
lanik eta gogorrena.
Baiña obispo ona izan leike
gogo onez datorrena,
ta Blázquez jauna izan daitela
Añoberos bigarrena.

Tantaka

Loba baten semearen bateoan:

Aspaldi ontan enaiz ibili
plazetan bertso kantari,
baiña zertxobait kantako dautsat
gaur lako egun bateri.
Aingerutxo bat biurtu da ta
gaurko ontan kristau barri,
kristau barri au iskinduteko
zeruetako Aitari.

Mutil zar bati:

Gaur ezkonduak baiño obeto
bizi dira mutil zarrak,
bizitza ondo igaroteko
ez dira elementu txarrak.
Lorik ez dautse kentzen orrela
ume txikien negarrak,
eta gaiñera eurak ez dauke
zeiñek ipini adarrak.

Lauaxeta zanari:

Lauaxeta, zu nor izan ziñan
nik ondo ezin azaldu,
zeure erria maitatzearren
munduko bizia galdu.

Baiña alan be zeure oiua
lau aizetara zabaldu,
ta aizetara botatzen dana
iñok ezin dau isildu.

Francok txarrai dei egin eutsen orduan:

Demokrazia zapaldu eta
ostikoperatutzeko,
gaizto guztiai dei egin eutsen
bere alde etortzeko.
Deabrua be bertan izan zan
orretan parte artzeko,
baiña Francok au ez eban artu
naiko txarra etzalako.

Amerikanoak medizinak bota ebezan orduan:

Mundu guztiak fariseoen
jokoak egiten ditu,
Amerikako ipar aldeko
asko be ezin sinistu.
Gerran *misilak* metro bateko
zirkulu txikian sartu,
ta Ruandako janariakin
lau kilometro erratu.

Anaia Amerikatik etortzea eta agurra:

Maiteak alkar besarkatzeko
etorri ziñan gugana,
minutu bi lez igaro jaku
iru illerako zana.
Orrek diñosku laburra dala
munduan jazotzen dana,
orain barrero joan bearra
ango maitetxoakgana,
odol berotan eroan gure
besarkada bero bana.

Gazte dirudun bateri:

Sarri askotan entzundakoa
ekarri daigun gogora:
gaztetasuna eta dirua
dirala su ta polbora.
Gauza bi orreik daukazan orrek
ez badau zerbait ganora,
su ta polborak alkar jotzean
dana doia ankaz gora.

Aita Lino Akesoloren omenaldian bazkal ostean:

Orain nai eta lenago baiño
lana askoz geio kosta,
Aita Linoren argia ez da
oraindik ilunak jota.
Ez daigun pentsa amaitu dala
omen egin jakola ta,
oraindik beintzat Aita Linori
errekienik ez bota,
gaur egun bere Aita Linoren
motorra martxan dago ta.

Begoñazpi ikastolari:

Ikastola au sortu zanetik
aurten ogetabost urte,
berari esker gure euskera
gaur da indar barriztute.
Gure erriko izkuntza da ta
danok egin daigun maite,
eta bizirik iraun daijala
munduaren mugararte.

Igorren lenengoz gudari-eguna ospatu zan egunean:

Ezin sinistu ze ikusten daben
gaur emen nire begiak,
gerran bizia jokatu gendun
gudari agurgarriak.
Baita eurakin emakume ta
gaurko gudari barriak,
geure aurretik geugaz batera
gure parlamentariak,
ez ikaratu badau arnasa
oraindik gure erriak.

Gure ikurriñari, gerra ostean gudari-egun baten:

Ikurrin maite, ezautu dozuz
espetxeetako lexak;
egia esan, ez dozuz izan
ainbeste urte errezak.
Baiña burua jasotzen dau ta
egi garbi ta artezak,
zu ikustean betetu dira
gure biziko ametsak.

Berriatuako erriak bere burujabetza lortu eban urtean:

Erritar guztiaren
kemenen frutua,
bere burujabetza
barriro lortua.
Zorion emoteko
or nire kantua,
gora askatasuna
ta Berriatua!

Aita Lino Akesoloren beste omenaldi baten:

Erri batentzat sakratua da
jatorriz daukan kultura,
eta erriak jaso bear dau
kultura au bere lekura.
Kontuan artu Euskal Errian
ardura ortan geu gara,
Aita Lino, zu arlo orretan
age sendo bat zeu zara,
gure erria allega daiten
munduaren elmugara.

Bake-urtea ospatu zanean:

Aita Santuak bake-izenez
bateatu dun urtea,
munduarentzat izan daitela
zorion utsez betea.
Samin garratza gozotu eta
arindu daiten nekea,
seaskatxotik emon dauskula
Ume Jesusek bakea.

Euskal Errian uriolak izan ziranean:

Euskal Erria zapuztu dausku
uriolak ezbearrez,
maiteak urak eroan eta
famili asko negarrez.
Ola jausita dagon erri bat
jasotzen ezta ain errez,
baiña guztia burutuko da
fedo sendoen indarrez.

*Lauaxetaren gorputzkiñak Gasteiztik Mungiako
ortu santura ekarri ziranean kantatutako bat au
izan zan:*

Lauaxeta, bai, zu izan ziñan
euskal loratxo liraiña,
ta badakigu zein izan zendun
azken orduko samiña:
zure gogoak nai izan eban
lora agertu eziña;
baiña aixetan or dabil gozo
loratxo orren usaiña,
beti-betiko izango dana,
zu igertu ziñan baiña.

Bazkal aurre batean:

Mai eder auxe orain izan da
errezuz bedeinkatua,
ta errezu au apainduteko
bertsolarien kantua.
Naita izerdiz guztia dogu
Jainkoagandik artua,
on egiteko izan daitela
mai onetan dan frutua.

Erretore jaun barria erri batera etortzerakoan:

Aingerutxoak dabiz egazka
gaur emen inguruetan,
misteriozko gauza andi bat
jazoten dalako bertan.
Artzai barri bat sartu da eta
Jaunaren artaldeetan,
erri txiki au Jaunan aurrean
andia dogu benetan,
raskazielorik ez dago baiña
Jaungoikoa arimetan,

ta gizonaren anditasuna
bere egite onetan,
ta erriaren anditasuna
erritarren biotzetan.

Estibalitzko Ama Birjiñaren aurrean:

Kurutzetikan esana dogu
Jesukristo gure Jaunak
Birjiña dala guztion Ama,
gu bere seme-alabak.
Begoñan dauko Bizkaiak eta
Estibalitzen Arabak,
ementxe dago parbolea:
irudi bi eta Ama bat.

Begoñako Amaren aurrean:

Begoñako Ama, Ama laztana,
Amatxo gozo ta samur,
barrero nator zure aurrera
eta biotzetik agur.
Urrinetatik ibili arren
gogoz bai euki zaitut ur,
zuri eskerrak arriskuan be
iñoz enaz izan bildur.

Egunsentian:

Sorkaldetikan etorri jaku
beste egun bat barria,
eguzkiagaz bialdu eta
maitasunezko argia.
Osasun-bide izan dagigun,
dizdiratsu ta garbia,
maitasunagaz erakutsita
zelan dan maitagarria.

Jaunan eskutik artutzen dogu
guk ondasun ugaria,
gure izatea zeurea dan lez
egin zeure guraria.
Geuk be biotzez egin nai dogu
otoitza ta eskaria,
au egin ezik artutzen gagoz
geuretzat ez dan saria.

Lenengo jaunartzeetan

1 Gaurko egunak bertsoak eta
geiago merezi ditu,
ta gura neukez une onetan
bertsoak beintzat abestu.
Gure euskera eztakianak
egin daistela parkatu,
eta euskera dakizuenok
mesedez ondo aditu.

2 Zeruetara dagon bidea
aldatza eta iluna,
igaroteko bearrezko da
argia eta laguna.
Lagun ona ta argia dogu
Jesus gaur artu dozuna,
beragandikan ez aldendu ta
ez aztu gaurko eguna.

3 Au dogu, au, poz zoragarria
gaur emen ikusten dana,
ume alaiak pozez beterik
jatorkuz Jesusengana,
eta biderdi dator zerutik
Jesus Jainko eurakana;
ondo artuta emon besarka
guztiok mosutxo bana.

4 Aingerutxoak dabiz egazka
gaur emen inguruetan,
euran lagunen egun andi bat
ospatzen dalako bertan.
Gaur artu dabe lenengo aldiz
Jesus euran biotzetan,
au ikusirik nok eztaukagu
poza gaur etxe onetan?

5 Egun andi au asi dagigun
kristau zintzoen antzera,
alai-alairik gatoz guztiok
meza ontan alkartzera.
Jesus be badator da
geugaz alkartuko da
geure guztion artera,
egun eder bat igaro daigun
danok berakin batera.

Bertsoaren bideetan

Lexotiren omenaldian, 1989-I-15-ean:

Urtea etorri, urtea joan
eta urtea etorri,
aurtengoan gaur alkartzen gara
bertsozale, bertsolari.
Aurtengo ontan goratarrea
gure anai Lexotiri,
lagun Lexoti, alaitasuna
besterik ez da agiri,
egun andi au izan zaizula
zeure biziko pozgarri.

Jose Lizasoren omenaldian:

Zoritxarrean gaurko mundu au
maitasunean da gaixo,
arlotan bada gizon bat
maitasunezko itxaso.
Beartsuentzat esku zabal ta
jausita dagona jaso,
negarrez dana alaitu eta
saminduarentzat gozo,
geure artean dago gizon au,
au dogu Jose Lizaso.

Juan Mugartegiren omenaldian:

Zu, Mugartegi, gaztetxotatik
ziñan bertsolari argi,
ta erriari kanta dautsazuz
ainbat errazoi ta egi.
Buru gordetzen ibili barik
beti aurpegiz aurpegi,
eta omen au artu arren be
bearbada gazteegi,
ondo merezi dozuna da ta
zorionak, Mugartegi.

Madariaga anaien omenaldian, 1988-I-18-an:

Bertsolari ta bertsozaleak
gaur urteroko batzarra,
emen gara gu Euskal Erria,
egoia eta iparra.
Igezko urtean omendu gendun
Azpillaga bizkaitarra,
aurtengo ontan Madariagak,
anai bikote naparra,
eurarekin bat agurtu daigun
Nafarroa anai zarra.

*Nire lagun eta erritar zan Jose Mari Artetxe
bertsolariari:*

Gizon andiak esana da ta
oso nago sinisturik:
bere errian ez dauka iñok
igarlea izaterik.
Au sinistuta ziurtasunez
indartsu esaten dot nik:
zure errian ez dagoala
zeu ezaututzen zaitunik.

Lopategik txapela irabazi eban urtean:

Ze alde dagon gure bertsoan
atzo edo gaur ikusi,
len aldi baten egon gintzazan
egingo ete zan jausi.
Gaur zorionez indartu da ta
txalo bat baidau merezi,
Naparroa ta Gipuzkoak be
arlo ortan irabazi,
gure Bizkaiak zer egin dausku
izateko danen nausi?

Donostiako bertsolari-egun batean:

Emen gara gaur Euskal Erria
egoia eta iparra,
egun onetan egiten dogu
anai guztion batzarra.
Gaur Donostira zuzendu jaku
gure bideko izarra,
goazan berakin alaitu daigun
geure aberri bakarra.

Illoba Jabierrek nire omenaldian kantatua:

Nik zuregandik artua daukat,
aitite, bertso-eskola,
ta zuregandik nire zanetan
bero daukadan odola.
Aitortutzen dot arlo orretan
erne barria nagola,
baiña geroan izan nai neuke
zure antzeko arbola.

Markiñako komentuan bertsolari-egun baten:

Bere indarrez urruturikan
ekaitz gaizto eta laiño,

eguzkiaren izpi zorrotz bat
sartu da gaur bertaraiño.
Onek diñosku Jaunan grazia
badogula oraindiño,
au ikusirik, lagun maiteok,
nire biotzak gaur diño
batzuntzat egun bat geio dala
askontzat eun urte baiño.

Deunoro Sardui bertsolariari:

Barriz nire eskerrak,
bai, lagun Deunoro,
esanak esateko
ete gagoz zoro?
Egi zuzena ezta
labur ta luzaro,
egia betiko da
orain eta gero.

Dimako Faustino Etxebarria bertsolariaren omenaldian, alkate jaunak bitarte baten kantatzeko:

Lagun Faustino, gaur artzen dozu
erriko omen beroa,
zure lan ona eskertu eta
aztu ez daiten geroa.
Lan eder ori ez da izan da
barru utsa ta zoroa,
ni gatxak jota nagoan lez gaur
bere bidetik naroa,
baiña presentziz or ez banaz be
or dago nire gogoia.

Egaña bertsolariari:

Nik ez dakit zer izan gintzazan
len bertsolari giñanak,

baiña gaurkoak merezi dabez
benetako zorionak,
jakitunenak, ezjakiñenak
ta euskaldun guztionak.
Ain ziran bertso bikaiñ-bikaiñak
neurketan entzun ziranak,
entzule eta epailleak be
neurtu ezin leikezanak.

Bertso-papel idazleen omendaldian:

Gure bertsoak igaro eban
gaba ilun ta luzia,
indar zantarrak kendu nai eutsan
betiko bere bizia.
Baiña an zegon argi egiten
bertso jartzaillen zuzia,
frutu ederrak emoten dago
eurak gordeko azia,
txalo bero bat gaur eurantzako
oso ondo merezia.

*Antonio Zabalar, bere omenaldi-egunean, Derion,
1997-ko uztaillaren 11-n:*

Zorionean aurkitu zendun
zuk urre gorrizko giltza,
giltza orrekin idikitzeke
bertso zar askoren kutxa.
Iltzat zegoen bertso zarrari
emon dautsazu bizitza,
eta orrekin aberastu be
euskaldun bertsolaritza.

Arzallus eta Garaikoetxea

- 1 Abertzaleok burutu giñan
bai odol asko kostata,
batzuek nausi izan nai eben
orduan kostala kosta.
Eta erriak aututariko
aita be kanpora bota,
orain or dabiz aiten etxea
zuzendu bear dala ta,
etxerik ezin leike konpondu
aita kanpora botata.
- 2 Erria sentitzen ez dabenak
agintzea badaroa,
onek defendituko dau beti
bere poltrona beroa.
Biotza daukat negar-puntu ta
au esatera naroa:
zapalkuntza ta negarra bazan
orain arte igaroa,
askoz txarrago ikusten da gaur
aberriaren geroa.

3 Gure Sabino gaur emen balitz
jarriko zan arrituta,
ikusirikan bere dotriña
bide okerra artuta.
Buru batzuek egotearren
kanpotarrakin nastuta,
sinistu bere ezin leike gaur
erritar batzun konduta,
kanpotarrari emoten dautse
abertzaleai kenduta.

4 Sabin Arana, garbia dogu
benetan zure dotriña,
ta bera zaintzen igaro zendun
kartzelan zigor samiña.
Traiziñoa da dotriña orri
anai batzuek egiña,
zeure etxean aurren jarrita
egiñik joko zikiña,
danak kanpora botako zeunkez
gaur etorriko baziña.

Biotz samindua

- 1 Une danetan dogu
zerbait egiteko,
orregaitik ez itxi
ezertxo geroko.
Joan zana joan zan
joan be betiko,
eta geio erarik
ez dogu eukiko.
- 2 Buruauste gogorra
gizonarentzako:
denpora gitxi eta
egin bear asko.
Galtzen bada errua
ortan berak dauko,
sarri gauza utsetan
itotzen dalako.
- 3 Egirik andiena
dogu Jesusena,
Aitagandik artua,
garbi ta zuzena:
munduan dagoana
dala guztiona,
aberatsak entzun be
gura ez dabena.

- 4 Kontzientzi guztiak
argitan balegoz,
alkar begiratzeko
bai ederrak gagoz.
Fariseoen berbak
lisu gozo aoz,
griña ta amurrua
besterik ez gogoz.
- 5 Zapalduko gaituez
guzur ta indarrez,
baiña egi garbi ta
errazoietan ez.
Nai bizi zapaldurik,
nai bizi negarrez,
guzurrik ez dogu nai
egiaren orde.
- 6 Parlamentura joan
errien ordeko,
erri-eskubideak
argitaratzeko.
Amurrua dauken lez
errazoienezako,
arranoai ordaindu
usoak ilteko.
- 7 Munduko denporea
oso dogu labur,
etorri eta bizi
ta urteera ur.
Baiña garbi jokatu
ta ez izan bildur,
bestera joatean
mundu oni agur.

- 8 Munduan agintari
gaur daukaguzanak,
erdiak edo geio
ez dira zuzenak.
Eta zuzentasunik
ez badau gizonak,
ezer ez dau balio
gizonen izenak.
- 9 Munduan martxan dago,
ez da geldituten,
bere martxan bear da
sartu eta urten.
Ain dau martxa andia
erreza da jausten,
eutsi urteerea
zutik egin daiten.
- 10 Abereen alturan
gizonak bagengoz,
amurruz dan mundu au
zuzen zan oraingoz.
Gizonak alkar ilten
amurrutan gagoz,
eskuz ezin egiña
egiñikan gogoz.
- 11 Jesus bake santua
emoten etorri,
ta guk lepoa emon
ta ukatu sarri.
Bake benetakoa
nai badogu alkarri,
lenen norberarena
biotzean jarri.



Jesus Maria Leizaola eta neu.

12 Mundu zero bitarte
daukagu iluna,
fedea da ilun au
argitzen dauskuna.
Bestaldean dagon lez
betikotasuna,
ilun ortan galtzen da
federik eztuna.

13 Zarra eta gaztea
egitean neurtu,
munduak egiten dau
erabagi artu.
Gerorako aria
ez daiten apurtu,
gaztea aurreratzea
ta zarra baztertu

14 Abertzale batzuna
sinis ezin leike,
aberriaren aurka
dabiltza jo ta ke.
Gure Sabino barriz
emen balitzake,
maketo kamuflauok
kanpora ostike.

15 Ertzaiña sartu dabez
Francoren mutillak,
bai zuzendari eta
guardia zibillak.
Lengo tratua dauke
gudari umillak:
kartzelan sartu eta
torturakin illak.

16 Eurak daukez pistola,
kaiñoi eta fusil,
ta gu euran menpean
egon bear isil.
Eta ez dagoana
makur eta umil,
kartzelan sartu edo
tiro batekin il.

17 Non dira errazoiak
ta eskubideak?
Non dira maitasuna
ta zuzenbideak?
Non dira Jaungoikoak
jarriko legeak?
Zapaldu dituz indar
biotzik gabeak.

18 Aita ezautu ez ta
ama maitatu ez,
ta gu eskolatzera
bialtzen dituez.
Eurak jarri agintzen
polizi ta juez,
ta esklaboak legez
tratatzen gaituez.

19 Burrukan dabiz danak
eskuma ta ezker,
iñor ez dabil zuzen,
danak dabiz oker.
Aitu egin gaitezan
andi eta txiker,
ea zapaltzen dogun
munduko Luziper.

- 20 Beterik pistola ta
fusil metralleta,
kanpotarrak jatorkuz
amurruz beteta,
gu zibilizatzaera
pizti garala ta,
umildutzen ez dana
bota *plisti-plasta*.
- 21 Artu txakurrak eta
balakin fusilla,
eizera joaten dira
edozeren billa.
Nai izan basurdea
nai izan mutilla,
ezer ikusten bada
bertan dabe illa.
- 22 Juzgatutzen bagaituz
gaiztoen indarrak,
entzun bear kalumni
ta errazoi txarrak.
Orreik ez dauz biguntzen
egien negarrak,
biotzaren lekuan
daukiez adarrak.
- 23 Munduan izan leiken
epairik txarrena,
amurruz jarritako
maitik datorrena.
Kristo jarri maian ta
gorrotoz barrena,
inpernuko epaia
da juez orrena.

- 24 Iñok egin al badau
bere erri-kalte,
bera ipinten dabe
erriko alkate,
bere jaioterra
ez dabena maite,
nai erria ondatu
ta naigabez bete.
- 25 Millaren guzurra ta
baten errazoia,
egia bildotsa ta
guzurra leoia.
Gaiztoaren ezpata,
zintzoen otoia,
bildotsaren negarra,
piztien orroia.
- 26 Indar asko daukan lez
deabru zantarrak,
biotzera sartzen dauz
bere erpa txarrak.
Bizirik dagozan lez
asko lengotarrak,
entzun bear kalumni
ta errazoi txarrak.
- 27 Erri geiena preso,
samin eta neke,
Euskadi zuzentzeko
madriltarraie eske.
Eta eurari saldu,
baita oso merke,
traiziñoen artutako
poltronaren truke.

- 28 Iñoren lan garbia
txartzat artu daiten,
beti kalumni eta
guzurrak esaten.
Balioko gauzarik
ez dabe egiten,
olakoak obeto
asto-korta baten.
- 29 Gaizki esanak asko
bat desondratzeko,
zoritzarrez gaur dago
ainbat orrelako.
Baiña erriak ez dau
egin zirkin asko,
esaten daben dana
guzurra dalako.
- 30 Gizona munduratu
Jaunak bialduta,
bere eskubideak
zerutik artuta.
Etorreran txiroa
jarri arrituta:
dana atrapatuta,
dana zarratuta.
- 31 Luzifer deabrua
iñok ezin ezi,
infernura jaurti ta
mundura igesi.
Ta munduan jarririk
mundutarren nausi,
Kristo etorri zanean
kurutzean josi.

32 Kain izan zanetik
gabiz alkar ilten,
eriotza besterik
ez dogu ikusten.
Alkartzen ez bagara
errazoiz mai baten,
tiroka gerrarikan
ez da amaituten.

Gizon jator bi

Muxikan, Aita Santi Onaindia eta Alfontso Irigoienen omenaldian:

Gure bertsoa zegoanean
zulo sakon ilunean,
gizon jator bi jazo zirean
argitaratzen lanean.
Eurai eskerrak indar barriztu
egin da zorionean,
gizon bi oneik pozez daukaguz
eurantzako omenean,
langille danak pozten diran lez
frutua datorrenean.

Esaten dabe bertsolariak
dirala berez sortuak,
baita nik diñot asko ta asko
zeuoi esker itxartuak.
Bultzakadarik onenak ziran
zeuokandikan artuak,
bertsolaritzak gaur egun daukaz
gorengo maillak lortuak,
mailla au baiño gorago dira
zuen bion merituak.

Donostiako omenaldian:

Bertsolariok geure arloan
bai badaukagu ainbat zor,
baiña aurten be omentzen doguz
famiako bi dotor,
jakiturian andiak eta
gizontasunean jator.
Oneixek ziran nire aldian
bertsolaritzaren motor,
eta gaur beste danen ganetik
eurak agurtzera nator.

Bazkal ostean:

Aita Santi ta Alfonso jauna
dakaguz geure erdira,
bertsolariok alkartu eta
euran ingurumarira.
Gure bertsoa bultzatu eben,
jakitun jatorrak dira,
eurari esker gure bertsoa
ikusten dogu dizdira,
nik ez dakit gaur zer izango zan
eurok izan ez balira.

Bilboko Kafe Antzokia

- 1 Bilbon daukagu leku eder bat,
au da Kafe Antzokia,
bertako eta datozenentzat
alaia ta egokia.
Ta nai dabenak iñon aurkitu
atsedenezko tokia,
antzoki ontan aurkituko dau
Bilboko zero txikia.

- 2 Gure euskerak aldi gogorra
igaro dausku benetan,
baiña jausi zan euskaldun zintzo
ta zaintzaille jatorretan.
Eta bizia salbatu dausku
zulo ta baserrietan,
gaur zorionez iru eskola
Kafe Antzokian bertan.

- 3 Oindo oraintsu izan genduan
euskerea galazota,
zulorik zulo ibili bear
eriotzaz zigortuta.
Gaur egin geinke alai indartsu
irrintzi aundi bat bota,
erria aske ez badogu be
euskera salbau jaku ta.

Arantzak

1 Sarri askotan arkitua naiz
egi on au esan nairik,
ta oraingoan ezin naiz egon
egi on au esan barik,
egi andi ta garbia da ta
iñon badago egirik.
Esaera da ez dagoala
lorarik arantza barik,
baiña, kristauak, gure arantzak
iñoz ez dauka lorarik.

2 Zelan arraiio egongo gara
Espaiñakin alkartuta,
espaiñatarrak gu euskaldunok
armaren puntan gaituz ta?
Aldi bat arte euki genduzan
eskubideak kenduta,
gizonak ditun eskubide ta
errazoiak zapalduta,
baiña alan be guk ez daukagu
itxaropena galduta.

3 Iparragirrek bein kantau eban
ia emonez negarrai,
ikusirikan menpe zirala
gure mendi eta zelai.
Ipar alde ta ego aldeko
anaiok, asabai jarrai,
olan alperrik jarriko dauskuz
orko muga eta ibai,
ezin legikez banandu eta
odolez diranak anai.

4 Gizonak ezin agindu dau ta
bere eskubideetan,
kanpotarra da geuri agintzen
geure erri ontan bertan.
Eun ta berrogei ta amar urte
gabiltza burruka ortan,
eta gaur bere anai-arrebak
erbeste ta kartzeletan,
oba burruka garbi baten il
orrela izatekotan.

5 Gaur Espaiñan dan demokrazia
oso dogu itxusia,
guzur biurtu gura dauskue
geure begiz ikusia.
Gure errira bialtzen dausku
zizaiña eta sasia,
bertan doguzan lora lirañai
aizkora ta artazia,
Jesus Jainkoak esan daijala
au bada demokrazia.

6 Mindurik danak sarri askotan
gauza txarra egiten du:
lagur urkoa iltearekin
gure Jainkoa iraindu,
eta gaiñera beraz batera
bere erria samindu,
emazteari senarra eta
umetxoai aita kendu,
Kainek egin ebana bere
augaz ezin lei bardindu.

7 Jatorrizkoak diran ezker
munduak ditun legeak,
gizonik eta argienak be
ezin leiz jarri obeak.
Argi ta garbi ikusten dira
ta gaiñera dotoreak.
baiña barriak jarri dabez ta
ministro ta erregeak,
aberatsentzat oso on-onak
eta or konpon pobreak.

8 Gu euskaldunok borrokan gabiz
urteak gau eta egun,
eta Madrillek jakin daijala
zergaitik egiten dogun.
Errespeto ta demokrazian
gu gara guztien lagun,
indartsu dabiz engaiñuakin
guzurra sinistu daigun,
biotz bakoak dira asko ta
ezin izan biotz bigun.

- 9 Parabola lez artuta bere
bat jo egin lei bildurrak,
gure inguru dagozalako
saltzailleak ta lapurrak.
Gure erriak bai artu dituz
makurkeri ta zigorrek,
Euskal Erriko bildots oneri
urrua dautsez azurrak,
amurrutuak ete dira ba
gure auzoko txakurrak?
- 10 Aldi aretan egiñak ziran
gaiztakeriz egiñalak,
paliopetik Kristo kendu ta
bertan jarri jeneralak.
Ta palioa eroateko
obispo ta kardenalak,
kriminalari gorazarreak
ta Kristori funeralak,
santuak kendu altaratik ta
bertan jarri kriminalak.
- 11 Espaiñatarrak gutzako dira
engaiñosoak gaur arte,
ta engaiñuok izanak doguz
beti geure erri kalte.
Geure erriko kaxak utsitu
ta Madrillekoak bete,
gauz onik iñoz ez dagoan lez
tranposoarekin naste,
orrelakorik ez dogu bear
geure errepresentante.

12 Gure erria zuzenduteko
bai dau argia Euskadik,
ta itxartuta gogoan artu
ez dakigunak oraindik,
gauza onikan ez datorrela
inoz kanpotarrakandik.
Begira or zer agertzen dauskun
igaroko bi gizaldik,
engaiñua ta nekea baiño
ez dala artu Madrildik.

13 Eskubideak zaintzeagaitik
izan giñan zigortuak,
zoritxarrean gaur be badira
era ortako tratuak.
Ta esan leike eurak dirala
lengoagandik sortuak,
beste era batera esanda
lengo ortatik artuak,
esandakoak ez badira be
bai lengo aparatuak.

14 Munduan dira gizon batzuek
amurruakin aziak,
augaitik sarri dau arriskua
gizon ondrauan biziak.
Sarri askotan ez dauka lanik
juezaren justiziak,
detenitu nai juzgatu nai il
egiten dau poliziak,
era ortako jokaera dau
gaur dogun demokraziak.

- 15 Orain arteko istorietan
jazotako bat sinistu:
beti jazo zan batak bestea
indarrakin menperatu,
indartsuena agintzen jarri
ta galtzaillea zigortu.
Baiña gerrea amaitutean
ondo ez badira aitu,
tiroz amaitzat emondakorik
oraindik ez da amaitu.
- 16 Euskal Errian egundo etzan
leialtasuna besterik,
baiña bein baten sartu jakuzan
otsoak ardi jantzirik.
Ordurartean etzan ezautu
erri ontan traiziñorik,
baiña otsoak ekarri eben
gogo txarra igarririk,
otso zar orreik aldendu arte
emen ez dogu bakerik.
- 17 Erbestetarrak sartu jakuzan
euskaldunari etxean,
gure kultura, nortasuna ta
askatasuna kentzean.
Arma zantarren indarren puruz
artuak giñan menpean,
eta zinismoz orain diñosku
ez gagozala bakean,
bakerik iñok ez dau emoten
menpean dagon artean.

18 Madril zaleok agertzen dira
kuku zarraren antzeko,
boto denboran dira lagunak
eta baita be etzeko,
kuku zar ori etorten dan lez
bere umea azteko.
Gero or konpon gugaz aztuta
Madrillen lau urterako,
arloteok au egiten dabe
geu leloak garalako.

19 Politikoak iskintzen dabe
au ta ori aurrerantza,
iskintzen dabe gero obeto
biziteko esperantza.
Batzuek alan, besteak olan,
beste batzuk besterantza,
baiña batek be ez dau emoten
esanaren segurantza,
askok ta askok agertzen dabe
komediantearen antza

20 Amatxo baten seme izanda
geu ezin gara konpondu,
au ikusirik gure etsaiak
barre lasai egiten du.
Egiten dogu geu argaldu ta
geure etsaia gizendu,
anai bakotxak egin dagigun
bakotxak geurea zaindu,
eta otsoa datorrenean
danok alkarri lagundu.

21 Gizona sortua da munduan
askatua izan daiten,
baiña gizonak euran artean
dabiltza alkar lotuten,
ta orregaitik gaur ez da errez
mundua ona izaten,
Euskaldunokin jazoten dana
emen dago begi-bisten;
txartzat gaituez bakean eurak
ez dauskulako itxiten.

22 Gure Jainkoak egi zuzenai
emon dautso milla grazi,
orregaitiño guzur zantarrak
egirik ezin ikusi.
Orrela nai da menperatuta
zigor gogorrakin esi,
baiña egiak guzur orreri
nai dautso adierazi
guzurrarekin bizitzekotan
oba dogula ez bizi.

Urkiolan

ARRATIAKO erri guztiak egiten dabe urtero erro-meria Urkiolako San Antoniora, eta ogetamar urte edo geiagotan urte guztietan egon naz bertako mezan bertso kantari.

Urtero sortzen ziran barriak bitarte izaten zirala, normalean kantatzen nebazan egunari egokienak; eta oneik dira gorde dodazanak, eurak esan daberen mezaren ataletan kantatuak.

Ikusten duzu goizean doiñuan lenengo irurak:

- 1 Euskal Erriko lurrean,
Urkiola gallurrean,
fedearen izarrean;
Arratiako erri guztiok
urteroko batzarrean,
geure oitura zarrean,
fedea jarri indarrean,
San Antonioren aurrean.

- 2 Ze gauza miragarria
eguzkiaren argia
zeru goitik etorria!
Eta berakin etorten jaku
gure frutu ugaria.
Zeruko Aita guria,
artu gure oparia:
ardaoa eta ogia.

- 3 Abadea zuzendari,
gu jarraituten berari,
San Antonio zaindari,
berotasunez jarraitu eta
gurasoen fedeari,
egin dagigun opari,
aurrerantzako eskari
lortzeko frutu ugari.
- 4 Otoi ederra egiten dana
Jauna gogoan artuta,
eta batez be egin ezkerro
erri danak alkartuta.
Batasunean alai,
maitasunean anai,
biotz danak zabaldua,
gure Jainkoak erri guztiak
alkarturik nai dituz ta.
- 5 Zentzunik bada onena dogu
Jaungoikoaren legea,
au ausnartzeko gauza ederra
itxaropen ta fedea.
San Antonio euskaldunentzat
birtuteen erregea,
bere laguntzaz indartu daigun
bertan bakotxak berea,
danok alkarrik gogoz eskertu
grazi onen mesedea.
- 6 San Antonio, mundu onetan
zure lagun zendun Jesus,
Urkiolatik be igaro ziñan
jarraitzean bere pausuz,
gure lurreko abere eta
frutu danak bedeinkatuz,
santu andien birtute eta
altasun andiak dozuz,
zeure aurrean gagozan danok
arren bedeinkatu gaitzuz.

7 Egunsentian entzun dira gaur
Anbotoko deiadarrak,
ta dei ortara aditu gara
itxarrik arratiarrak.
Gure bidea argitu dausku
Urkiolako izarrak,
San Antonion alkartu gara
sendotzen oitura zarrak,
gu ez gaitu, ez, bape bildurtu
euri ta denpora txarrak.

8 Gure asabak ipar-izarra
izan eben Urkiola,
euran frutuen konfiantzako
San Antonio eukela.
Arratiarrok jokatu daigun
gure asabak bezela,
oraindiño be pizturik da ta
Urkiolako kandela,
eta mundua mundu dan arte
pizturik iraun daiela.

9 Gaur Urkiolan gagozan danok
ekarri geure gogora,
sarri askotan gu gabizala
zuzenbidetik albora,
ez dakigula nondik gatozen,
non gagozan ta ez nora.
Zuzenbidera jarraitutzeko
begiratu daigun gora,
abisu onek iraun daiala
urrengotik urrengora.

- 10 Goian daukagu elmuga eta
begira daigun gorantza,
gora begira dogu baita be
gure bideko orratza.
Ta izar orrek giatu gaituz
gaur San Antoniorantza,
bere laguntzaz sendotu daigun
fedea ta esperantza,
ortik dator ta betikotasun
alaia ta aberatsa.
- 11 Gaurko mundu au aurkitzen jaku
laiño baltzez estalduta,
eta gizonak euran azpian
euran iparra galduta.
Arratiarrok jokatu daigun
erri danok alkartuta,
oitura on ta San Antonio
gure gidari artuta,
oitura onak zaintzen dituan
erria salbauko da ta.
- 12 Meza eder bat ospatu dogu
esku emonez alkarri,
era ontako egun ederrak
bear gendukez guk sarri.
Egun oso bat iskinduteko
gure San Antoniori,
arrastia be eguna da ta
arrastian be etorri.
- 13 San Antonion igaro dogu
egun andi bat alkarrik,
eta egun au ez deila izan
gure bizitzan alperrik.
Mundu ontako gure bidea
dagon lez trabaz beterik,
estualdi ta une larrian
ez gaitzuz itxi bakarrik.

- 14 Euskal Erriko esaera bat
dogu: "Euskaldun fededun",
ta fede biziz alkartzen gara
arratiarrok gaur egun.
San Antonio santu andia,
izan zaitez gure lagun,
gure asaben esaera au
egiz konfirmatu daigun.
- 15 Zeruko Aita, gaur artu dogu
zeugandik egun barria,
eta berakin eguneroko
argia ta janaria.
Geuk be iskindu nai dogu Zeuri
geure frutu ugaria,
San Antonio bitarte dala
artu gure oparia.
- 16 Gaurko mundua igaroten da
benetako aldi txarra,
baiña oraindik pizturik dogu
Urkiolako izarra.
Ta bera dan lez argituteko
daukagun bide bakarra,
anaitzekoa izan daitela
gaur egin dogun batzarra.
- 17 Mundu onetan doguz egunak
bai era askotakoak,
baiña benetan beti alaiak
gure Urkiolakoak.
San Antoniok emon daizkula
emen eskatutakoak,
era berean egun eder bat
danontzako Jaungoikoak.

*1997-an, San Antonio ta bere eliza barriztuta
ikusiaz:*

17 Gaur emen garan geientxoenok
gagoz pozez arrituta,
ikusirikan San Antonio
ta eliza barriztuta.
Zorionean bat edo beste
bai da or arduratuta,
arlotako lanen ardura
guztiorena dogu ta,
guztiok parte artu dagigun
limosnakin lagunduta.

Gudari zarrak

1 Gaur gobernuak diru-kontuan
darabil ainbat zarata,
erria ondo zuzenduteko
dirua bear dala ta.
Alan beaztu egiten jake
gudari zarren soldata,
aspaldin egin bear zan ori
ez da oraindik bete ta,
gudari zarrai emon saria
ori justizia da ta.

2 Gazteok jakin gudariaren
izena nondik datorren,
asko dagoz ta ez direanak
badirala esan arren.
Gudari giñan gudari zarrak
zuek sinistu ez arren,
baita gaur bere bizi garanok
atzean gagoz gogorren,
atze aldeak eutsi dagion
aurreak uts egin arren.

3 Gure erria gaur be loturik
emen ikusten dogu ta,
gazte maiteok, au esan zeinke:
zagozela aspertuta,
guk asko egin gendula baiña
ez garala askatuta.
Guk al genduna egin gendun da
guri errurik ez bota,
al dan guztia egin ezkerro
dana eginda dago ta.

4 Gudari zarrak gaur auxe diño
gudari gazteentzako:
orain arteko gerra guztiak
izan dirala galtzeko.
Beste bide bat artu bear da
oraindik aurrerantzako,
lan asko egin atomikazko
bonbaren bat egiteko,
bada gaur dogun borroka onek
irteerarik ez dauko.

5 Erria zaintzen jagi gintzazan
eskuan armak arturik,
eta augaitik jarri genduan
mundu dana arriturik.
Gaur be gudari zarren odolak
ez dausku galdu berorik,
baiña gaur egin bearko balitz
biotza zabal-zabalik,
Batzokietan dagozan askok
ez dauke eusko odolik.

6 Igaro gendun gerran jarri zan
mundu dana arriturik,
iru nazioi eutsiagaitik
larogei milla gudarik,
eta augaitik larri gengoan
danok eskomulgaturik.
Jakin daiela munduan diran
obispo ta agintarik,
guri bakean ixten dauskunak
gugaz ez dauka gerrarik.

7 Gaurko gudari gazte maiteok,
au eidazue aditu:
gure erriak iraun dagian
indar danak bear ditu.
Gudari zarrok geure aldian
ezer ez geuntsan ukatu,
gendun guztia iskindu geuntsan
naita bizia jokatu,
ta laguntzarik bear badozue
gudari zarrai eskatu.

San Juanetan

Bezperan:

Arrokerizko jolas oietan
dabiz milloiak erretan,
eta gizonak goseak ilten
munduaren bazterretan.
Aberastasunik andiena
dalako esku txarretan,
mamarro gaizto guztiak erre
gaur gabeko sugarretan.

San Juan egunean:

Kristaurentzat meza santua
otoirik ta ederrena,
bere barruan gogoratuaz
egun berak dakarrena.
Egun danetan doguz santuak
ta gaur dogu San Juanena,
meza onetan egin daiogun
santu oneri omena,
meza dalako danen ganetik
omenik eta onena.

Arrokeri dun agintariak
anbat gauza txar egin du,
berak eiteko adorerik ez,
bere morroiai agindu,
eta morroiak obeitzearren
joan da samea kendu.
Mundu onetan aldi ontan be
baida olako durundu,
Jaungoiko ona, agintariok
argitu ta zentzundundu.

Zeanuriko ermitetan

ZEANURIKO Andra Mari parrokiaren ondoan ermita txiki bat dogu San Balentin izenarekin. Santu au aiztuta egon zan urte-mordoan. Baiña ermita ori barriztu eta ondo atondu zanean, inauguraziño-egunean bertso asko kantatu genduzan Joxe Mari Artetxek eta biok, eta oietariko batzuk onako oneek, nik kantatuak:

Enamorauen santua dala
geienok badakizue,
alantxe da ta eztakianak
artu nire abisue.
Enamorauak artutzen dabe
bata besteen mosue,
emen ez dogu mosurik baiña
badaukagu armozue.

Gure santu au aldi batean
apur bat egin zan aiztu,
ta zorionez bere auzoak
barriz egin dabe piztu;
eta gaur bere bere lagunak
ein dabe asmo au artu,
gauza ederra da ori eta
bertatik gogoz jarraitu.

Altzusten, San Migeletan:

Gure Altzusten San Migel dogu
gure Zaindari arturik,
eta gaur bera aintzatuteko
emen gagoz alkarturik,
abade jauna aurre dogula
biotz danak zabaldurik;
Jainkoarentzat gizonak ez dau
ori obetutzekorik.

Danok dakigu asko edo gitxi
Mikel Deunan istoria,
bera izan zala Jaungoikoaren
aurrenengo gudaria.
Gaur bere eguna dogu eta
ein daiogun oparia,
berau dalako gau eta egun
Altzustarren Zaindaria.

Autortzen dogu jai nagusi au
dala umil ta apala,
emen eztago organu andi,
bonbo eta astrapala.
Baiña bai dago gauz ederrena:
biotz andi ta zabala;
gure Mikelek au ondo daki:
obeagorik eztala.

Undurragan, San Pedrotan:

Egun barri bat ekarri dausku
zeruetako argiak,
eta lenengo Jaungoikoari
geure esker ugariak.
Izan zaiteze meza ontara
danok ongi etorriak,

gure zorionak artu daizala
don Pedro agurgarriak,
eta bedeinka gaitzala danok
gaur San Pedro zaindariak.

Gure San Pedro aintzatu daigun
gaur dan lez bere eguna,
mundu onetan kristau guztiok
alai ospatzen doguna.
Santu odoltsu, santu gogorra
ta santu biotz biguna,
uts bat ein arren gure Jesusen
konfiantzazko laguna.

Ipiñen, Santiagotan:

Ipiñe aldeko auzounea
Zeanuriko partean,
Gorbei mendiko egalean ta
solo ta baso artean.
Gaur Santiago ospatutzen da,
baita urtean-urtean,
lan eta neke izan arren be
jaitik jaira bitartean,
jaiak ospatzen badakizue
beste batzuek bestean.

Gorbei ganean kurutz santua
ta Ipiñen Santiago,
basa-elizatxo batean baiño
danak baiño andiago,
Konpostelako jai zaratatsu
andiak baiño gorago.
Esakereak auxe diño ta
neu bere orretan nago:
Jainkoarentzat anditasuna
umiltasunean dago.

Ausnarketan

1 Mendi altutik begiratuta
azkenik ez da ikusten,
gizonarentzat ez da erreza
gauza ori ausnartuten.
Zeruko Aitak bere altasunak
olan dauskuz erakusten,
augaitik nago auxe bertso au
indartsuen abestuten,
Jaungoikoaren anditasuna
aintzatua izan daiten.

2 Jesukristoren dotriña dana
oiñarritzen da pobrezan,
ta aberatsak ostu dauskue,
au ez dago zertan esan.
Printzesa baten ezkontza ori
pobreena etzan izan,
erratu orreik gaur be badira
ikusten dan lez Elizan,
Elizarentzat askozaz obe
kanpoan ezkondu bazan.

- 3 Munduan diran legeak dira
gizonak jarritakoak,
eta ez dira erdiak bere
Jainkoaren gogokoak.
Geienak dira aberats eta
andiaren aldekoak,
mundu ontarako jarri zituan
argienak Jaungoikoak,
zuzenak eta errezak eta
iñon atxaki bakoak.
- 4 Aberatsak dau kristau txiroa
indarrez menperatute,
ta ori barriz Kriston aurrean
santu bat lez agertute.
Kanpo santuan bere illetxez
leku onenak artute,
il da gero be ez badabe nai
txiroarekin alkarte,
illetxe orreik ein daiezala
kanpo santutik aparte.
- 5 Atzo bardiñak, gaur ez bardiñak,
bier barriro bardiñak,
andi ta txiki, txiro, aberats,
zuri, gorri ta urdiñak.
Kanpo santura bakarrik doaz
gizonaren gorputzkiñak,
galtzuak dira kanpo santuan
eiten diran alegiñak,
bakarrik dira baliosoak
munduan ondo egiñak.

6 Kanpo santuan ikusten dira
arri landu ta burdiñak,
artista onak asko kostata
aberatsentzat egiñak.
Antxe be ondo igaroteko
eiten dabez alegiñak,
eta txiroa irunsi bear
bere lur santu gordiñak,
ez ikaratu, ara joatean
guztiok gara bardiñak.

7 Mundu ontara gatoz guztiok
enkargutxo bat arturik,
egin bearrik ez dogu geio
berau entregau besterik.
Baiña bidea aurkitzen dogu
tentazioaz beterik,
zuzen ta zintzo jokatu bear
uts orretan jausi barik,
azken arnasan entregatzeko
enkargu ori osorik.

8 Esaten dabe Kristo dogula
errege danen Errege,
baiña erregeok nitzat ez dira
Kristogaz aitzatzeko be.
Mundu ontako errege dana
gizonak autaten dabe,
eskubideak artzen badauz be
goiko altasunik gabe;
baiña Kristo da zeru ta lur ta
altasun guztien jabe.

- 9 Anaiak gara lapurditarrak,
Zuberoa ta naparrak,
anaiak baita gipuzkoar ta,
arabar ta bizkaitarrak.
Guztion Ama Euskadi da ta
gu bere seme bakarrak,
naita mapatik borrau nai izan
kanpoko indar zantarrak,
naita banandu gu beti gara
Euskadi erri bakar bat.
- 10 Espain ta Prantzi dira otso lez,
Euskal Erria bildotsa,
eta otsoak bildotsai beti
nai dautsie eriotza,
kendu nai dautse bere kultura,
nortasuna ta izkuntza.
Odol zaleak alkar tiraka
zatitu dautse gorputza,
baiña gorputza zatituta be
osorik dauko biotza.
- 11 Gure erria bizirik dago,
indartsu arnas, irrintzi,
Pirineoak erdi dirala
emen gagoz sei probintzi,
mundua mundu izango dan arte
naita narrua erantzi.
Alde batetik Espaiña da
eta bestetikan Prantzi,
otso bi oneik aoan dauke
baiña ezin dabe iruntsi.

12 Gure erria benetan dogu
naturalezaz apaiña,
zori txarrean urte gutxitan
sartu da zerbait zizaiña.
Baiña ondatu geinke gatx ori
gaur indartsu dago baiña,
garbizaleok artu dagigun
atxurra eta kodaiña,
zuzterretikan atera daigun
ta erein lora liraiña.

13 Gaur erdeldunak ipini jakuz
euskerearen zaindari,
oillategian oilloak zaintzen
txakur eta azegari,
ardao zale ta erdi mozkorra
tabernako tabernari.
Guzur-itxura badauko bere
or dagoz iru mirari,
Nobel saria emon bearko
ori lortzen dabenari.

14 Sarri entzun da gure Adanen
izkuntza euskera zala,
ordutik ona iraundutea
ez da meritu makala.
Or ikusten da argi ta garbi
izkuntza onen itzala,
ez dot esango orren jauberik
bertsolariok garala,
baiña bai bertsoa kantatzean
euskera egiten dala.

15 Gure euskerak igaro dituz
benetan aldi larriak,
baiña alan be ez dituz galdu
iñoz bere oiñarriak.
Urietatik ondatu arren
zaindu eban baserriak,
gaur urian be euskeraz doguz
umetxo agurgarriak,
eta frutua emango al dau
gaur dogun lora barriak.

Umezurtzak lez

ZEANURIN parroko egon zanean don Martin Olazar abadea, zigortu eta kartzeleratu eben urtean, Andra Mari egunez meza nagusian kantatutako bi:

Meza onetan umezurtzak lez
aurkituten gara baiña
Andra Maria lagun dogula
lor্তু da meza bikaiña.
Gure Amatxo agertzen jaku
loratsu eta liraiña,
agintariak ez dira etorri
ta preso eliz-artzaiña,
eurakana be eldu daitela
intzentso onen usaiña.

Gizonak ez dau bizi gura-ta
anaiarekin bakean,
gorrotoaren frutua dogu
mundu guztien kaltean,
ta guztia da daukagulako
deabrua bitartean.
Andra Maria, ez jausiteko
deabruaren erpean,
oilla lokeak bere txitak lez
gorde gaitzuz magalpean.

Egun aretan kantatua da au be:

Fusilatuak izan ziranen
a azken ordu larria!
Zintzo ziranak sentitu eben
justizien egarria,
ta asetzeko bala-zuloko
odolezko iturria.
Odol sakraua isuri zana,
baiña badator barria,
naita erriko gizon danak il
ez dabe ilgo erria.

Gabonetan

- 1 Askatzaillea etorri zandik
urteak igaro dira,
askatasun au ez da zabaldu
oraindik mundu guztira.
Gabon jaietan izar bat dogu
Belen aldean dizdira,
bere argia eldu daitela
baita be gure errira.

- 2 Jaunan legeak beera eta
gizonak jarriak gora,
guzurra dago lege barruan,
egia legez kanpora.
Era orretan dago munduan
gaurko gizonen ganora,
egiarekin ezin mogitu,
guzurrarekin nainora.

- 3 Mundu onetan iñok nai badau
bide argi ta zuzena,
duda izperrik iñon ez dago,
ori dogu Jesusena.
Baiña nai eta ondo azaldu
bere lege ta izena,
diñoenak be ez dau betetzen,
orrek emoten dau pena.

- 4 Andia dogu bakeen alde
askoren itxaropena,
baiña au lortu leukienak ez,
or sartzen jaku eztena.
Bakeen alde ez badaukagu
bakea lortu leikena,
egunen baten etorri leike
ortik gizonen azkena.
- 5 Poztu gaitezen egon giñanok
goiko itxaropenean,
itxaron gendun izar argi au
argiz agertu danean.
Izar eder au agertu jaku
Belengo zero ganean,
egien alde zeñek itz egin
sortu da zorionean.
- 6 Gabon jaietan mundu guztia
egiten jaku alaitu,
askatzaileak gizon guztiok
nai gaitulako askatu.
Ez daigun egin askatasun au
bier etzirako aztu,
egun alaiok egin daiguzan
beti-betiko luzatu.
- 7 Erodes orrek ikusi nai zun
Ume Jesusen odola,
baiña zerutik etorri jakon
aingeru ume-jagola.
Eta Erodes esku igurtzen
putzez beterik zegola,
Ejitorantza iges eginda
ezin atrapau iñola.

- 8 Kale guztiak argitan dagoz,
Gabon dala da ezagun,
baiña ez dakit misterio au
sinistu leiken gaur egun.
Kale guztiak argitan baiña
barruak daukaguz ilun,
eta lenengo geure argia
bakoitzak ixitu daigun.
- 9 Zergaitik negar, ainbeste negar?
Zergaitik negarrez urtu?
Belen aldeko zeru ganean
izar bat jaku agertu.
Ta izar orrek gaba ilun au
egiten dausku argitu,
bakea eta poza nai dunak
izar orreri jarraitu.
- 10 Egun onetan lagunentzako
auxe gura dot eskatu:
Ume Jesusek egin gaizala
askatu eta alaitu.
Bere inguru danok jarrita
askatasuna abestu,
eta kopea gora jasota
lagunak gogoan artu.
- 11 Zeruko Aitak ikusirikan
gizon guztiok ain naspil,
gu zuzentzeko Jesus bialdu
maitasunez eta umil.
Zeruko uso bakezale au
gure buru gane dabil,
Barri Onaren ekarle da ta
tiroz guk ez dagigun il.

- 12 Zeruetara pasadizuan
mundu onetara sartu,
eta Jesusek ipini euskun
zein bidetatik jarraitu.
Berea dogu bide bakarra
eta beste bat ez artu,
ara ez dago beste biderik
eta ez daigun erratu.
- 13 Gabon-jaietan urte zarra il
eta jaio urte barri,
urte barri au izan daitela
guztiorentzat ongarri.
Diñogun legez egiz bagara
zorionaren egarri,
maitasunezko besarkada bat
emon daiogun alkarri.

Jesus etorri jakun

- 1 Jesus etorri jakun
danok askatzeko,
Gabon ospatzen dogu
au gogoratzeko.
Baiña urte danetan
au jazoten jako:
aurkitu artzain gitxi
ta Erodes asko.
- 2 Munduan dabiltzanak,
Jesus, zure pausuz,
guzurrez epaituta
kartzeletan dozuz.
Gizonak askatzeko
ordenak dakazuz,
munduan egiteko
naiko dogu Jesus.
- 3 Jesus Salbatzaillea
munduratutean
ostatu eske dabil
atean-atean.
Azkenez jaio bear
estalpe batean,
andirik andiena
txikien artean.

- 4 Kristok ipini dausku
bideko orratza,
bere punta gidari
jarririk gorantza;
gero igon orduan
munduko aldatza,
aurkituko dogula
Aitaren baratza.
- 5 Gizon danok zentzuna
urri daukagun lez,
jai oneik artzen doguz
farraz eta burlez.
Geu askatzen etorri
Jesus maitasunez,
ta gizonak berari
ondo erantzun ez.
- 6 Etorri da Mesias
egon giñana zain,
Erodes be an zegon
andiki ta apain.
Jesusek susmaturik
traiziñoen usain,
naiago izan zitun
abere ta artzain.
- 7 Gaur mundu au dogun lez
amurruz beterik,
amurrutik ez dator
gerrea besterik.
Ezelan be ez dago
bakea lortzerik,
geuk geugan ez badogu
barruko bakerik.

- 8 Guziok dakiguna
egi bat au dala:
txarrak jaten dabela
onak egin ala.
Zintzo eroateko
au arlo zabala,
Espiritu Santuak
argitu gaitzala.
- 9 Mundua askatu zan
Jesus etortean,
baiña etzan onartu
arroen artean.
Bi milla urte eta
gizonak katean,
ia apurtzen diran
aurtengo urtean.
- 10 Ain zan indar andiko
izarren argia,
Erodesek eskindu
bere jauregia.
Jesusen erantzuna
nitzat larregia,
susmatu ebalako
ume-iltegia.
- 11 Jesuseren bidea
egin dogu artu,
gura dogu bertatik
adorez jarraitu.
naita bide au izan
gogor eta estu,
Jaunaren baratzera
eroango gaitu.

- 12 Urte guztietan lez
emen dogu Gabon,
bakezaleok alkar
zorionak emon.
Erodes be or dabil
eta lo ez egon,
begiratu zerura
izarra non dagon.
- 13 Urtea joan eta
urtea etorri,
Gabon jaien barruan
dogu Urte Barri.
Diñogun lez bagara
zorion-egarri,
besarkada bat emon
guztiok alkarri.
- 14 Zeru eder guztia
dogu izarratu,
Belenera doana
zuzenbide artu.
Ezkutatzen bajaku
barriro biurtu,
ta askatasunera
zuzenduko gaitu.
- 15 Etorri da Mesias
guztion artera,
mundua askatu ta
danok salbatzera.
Jokatuten badogu
beraren antzera,
salbatuko gara, bai,
beragaz batera.

16 Belen ganean dogu
dizdira izarra,
borondate oneko
gizonen iparra,
biderako argia
ta maitasun-garra,
aldatza igoteko
umillen indarra.

Eskerrak

Zeanuriko omenaldian

1 Gizona samur jartzen dauan lez
era ontako egunak,
eskerrik asko, antolatzaile
ta bertsolari lagunak.
Eskerrik asko, soñulari ta
biotzeko euskaldunak;
eskerrik asko etorri ez ta
gogoz emen dagozanak,
eskerrik asko guztiontzako
gaur Basilio Pujanak.

2 Au lako egunak egiten dausku
gizona oso samurtu,
eta ez dakit nire bertsoa
zelan asi ta amaitu.
Zuek guztiok egin dozue
borondatea agertu,
nire aldetik be gura neuke
zuek guztiok eskertu,
biotza zabal-zabal dodala
nire esker ona artu.

3 Umetxotatik ikasi neban
Jesukristoren dotriña,
eta berakin zerua dala
gizonarentzat egiña.
Andik etorri dala dirudi
nik gaur dodan atsegiña;
anai-arreba guztiok, jakin
bestetik dodan samiña:
orain zuekin daukadan zorra
iñoz ordaindu eziña.

4 Bertsolariak kontauak giñan
gu gazteak giñanean,
ta bildur giñan zer izango zan
gu isiltzen garanean.
Baiña gazteak agertu jakuz
arloan gogor lanean,
indartu eta txukundu dabe
bertsoa zorionean;
eskerrik asko, gazte maiteok,
erriaren izenean.

5 Bertsoagaitik idatzi leike
orri zabal ta luzia,
naita ez izan gure bertsoa
liburutik ikasia.
Bertsoak dauka danen ganetik
bere berezko grazia,
batzuk diñoe gaur dagoala
politikara jausia,
bertsoa ez da politikea,
bertsoa da justizia.

6 Gaurko onetan antolatu da
ain ikusgarrizko festa:
agintariak, bertsolariak,
radio ta telebista.
Eta jai au da bertsolai zar bat
dalako protagonista;
gazte maiteok, ortik jarraitu
biotzak gora jasota,
bertsolaritza salbatzen bada
erria salbauko da ta.

Zeanuriko

Andra Mari jaietan


1 Gaur Andra Mari agertzen jaku
loratsu eta liraiña,
zeruetara joan daitela
loratxo orrein usaiña.
Guretzako be gaur izango da
txistua ta tanboliña,
aingeruak be eukiko dabe
jai gertatzen zer egiña,
gaur igon da ta zeru ta mundu
guztiaren Erregiña.

2 Beren santuak ospatzen dira
bakotxaren auzunean,
Andra Maria erri guztiak
Andra Mari egunean;
eta beraren egun andia
gaur dogu zorionean,
seme-alabak pozten diran lez
amagaz dagozanean,
egun andi au igaro daigun
alai ta batasunean.

3 Edadez zerbait gora garanok
begiratuta sinistu
denporeagaz egun andi au
egin jakula otzitu.
Gogoratuta egin dagigun
egun au indar-barriztu,
Andra Maria Ama ona da,
berari gogoz eskatu,
eta fedea sendotuteko
berak indartuko gaitu.

4 Urreko atxa alde batetik,
bestetik Gorbei mendia,
tontor bi onein erdian dogu
Zeanuriko erria,
eta eleiza nausi onetan
erriaren Zaindaria,
gu giatu ta zaintzen gaituen
Ama dan Andra Maria;
otoi ta jolas igaro daigun
gaur bere egun andia.

5 Meza onetan, anai-arrebok,
kantatu dogu alkarrik,
Jesus bera be emen dogu ta
ez gara egon bakarrik.
Poz andiakin ikusten gaitu
erri maite Zeanurik,
era ontako egunarentzat
iñon ez dan lez neurrik,
egun andi au luzatu daigun
betiko oso-osorik.



Zeanuriko Andra Marin, meza barri baten bertsolari, Deunoro Sardui eta ni. Obispo bat be bazan an, Zeanuriko semea.

6 Egun onetan ospatzen dogu
Agoztuko Andra Mari,
ta jai onetan beti izan da
alaitasuna ugari,
zerura igon eban eguna
edur garbia lez zuri.
Zeru zabalak alairik dagoz
ta aingeruak kantari,
Andra Maria errukiorra,
zaindu zure Zeanuri.

7 Burrukari bi dagozanean
deabrua da bitartean,
deabru zarra barrezka eta
besteak euran kaltean.
Andra Maria, izan gaitez
maitasunezko bakean,
txitetxoak lez pillatu eta
gorde gaitzuz magalpean,
eta eriotzaren ondoan
beti zurekin batean.

Jesus Oleaga jaunari

AMIGOS *del País* izeneko alkarteak Jesus Oleaga jaunari egindako omenaldian, Zeanurin, 1995-ko irailaren 23-an:

1 Buru gora ta alai dogu gaur
zure erri Zeanuri,
goratzarre bat eiten jako ta
gaur bere seme bateri.
Inguru ontan alaitasuna
besterik ez da agiri,
ta orregaitik aстера noa
neu bere bertso kantari,
lora-txorta bat iskindu nairik,
Jesus, zure omenari.

2 Zuk badakizu gu mutikotan
eskola-lagun giñala,
eta gutzako bizitza ontan
egun onenak zirala.
Gutzako ziran jolas alaiak,
tronpa eta parrantola,
esaten euskun eskolarako
gogo asko ez geunkala,
baiña nik diñot ume-denporan
ume izan bear dala.

3 Bere garaia eldutakoan
erri-eskola amaitu,
andik aurrera gero bakoak
al eban bidea artu,
ta askok barriz nai izan gendun
bidetik ezin jarraitu.
Igarokoak igaro eta
gaur barriz gara alkartu,
eta munduan egin dozuna
guztia maian agertu.

4 Aldi batean aurkitzen nintzan
munduakin aspertuta,
nire bidean gizon gizon bat
iñon ezin aurkituta.
Baiña bat beintzat aurkitu neban
lagun Jesus ezaututa,
ordutik ona aurkituten naz
nire indar barriztuta,
ta orregaitik kantatzen dausat
nire txapela kenduta.

5 Mundu onetan bakoak dogu
egin bear bat astuna:
gizartearen alde egitea
emen egin al doguna.
Eta ori da zuk, lagun Jesus,
gaur arte egin dozuna,
Jaunari esker euki bere bai
egiteko altasuna,
altasun orri emon dautsazu
benetako erantzuna.



*Neu eta Jesus Oleaga, nire ume-denborako laguna,
onen omenaldian, Zeanurin, 1995-IX-23-an.*

6 Zeure bizitzan zuk egin dozu
merkantzi txarrik ez saldu,
egien alde jokatu eta
itxaropenik ez galdu,
guzur maltzurra aldendu eta
egi garbia azaldu.
Egia egi da beti eta
naita guzurak zapaldu,
mendia beti an dagoan lez
naita laiñoak estaldu.

7 Oiñen gaiñean egoteko be
ia enaz gauza baiña,
etxat damutzen ona etorteko
egin dodan alegiña.
Gauz andia da sentitutea
lagun baten atsegiña,
Jesus, zeurekin alkartzen da gaur
euskaldun talde apaiña,
txalotu eta goratutzeko
egin dozun lan bikaiña.

* * *

Jesus Oleaga jaunari egiñiko omenaldiaren oroi-
garri bezela, liburu polit bat atera eban *Amigos del*
País alkarteak. Neri Rafael Ossa Etxaburu jaunak
bialdu eustan, eta orduan beste bertso auek jarri
nebazan:

8 Zuk bialduko liburutxoa
artu neban, Ossa jauna,
nire bizitzan biotz barruan
ondo gordeko dodana.
Orrenbestean eskertuteko
etzan izan nire lana,
geure lagun bat aupatuteko
izan zan egin nebana.

9 Zuek dozue izen ederra:
Amigos del País Vasco,
eundakak urte bizirik eta
itxaropena geroko.
Gaur arriskua dauko gizonak
laiño artean galtzeko,
seme leialak ditun erria
egundo ez da galduko.

Zeanuriko

Txato aizkolariari

1 Neuk aldi atan kantau nebana
estimauko'zue geien,
gure Txatoa entrenatzen zan
Undurragako zelaien,
bere *fotina* egiten eban
Aldaminen ta Gorbaien.
Len esaten zan aizkolaririk
ez egoala Bizkaien,
gaur emen dogu gure Txatoa
geiago esan ez daien.

2 Alde batetik arduraz eta
bestetik pozez beterik,
ikusten nago gaur justizia
iñon bada justizirik,
guzur maltzurra amaituten da
ta justizia bizirik.
Bere seme zan gizon bateri
zor bat eutsan Zeanurik,
ta zor andi au ordaindu nai dau
erri dana alkarturik.

Auspoaren auspoa **liburua**

- 1 *Auspoen auspo* sortu zala ta joan nintzan Donostira, umiltasuna egon bazan be guzti-guztia dizdira. Zorro utsean ez daiten jausi ara egin neban jira, bertsoz diñodaz bada guztiak aitatutekoak dira.

- 2 Euskerearen aurka izan da trikimailu martingala, zaintzailleak be agertu ziran ta bat zeu, aita Zabala. Ikusten dogu bertsoen alde egin dozun lan itzala, baita bertsoa salbau ezkerero euskera salbauko dala.

- 3 Zeure biotzak bultzatu eta auspo antzera aizetsu, autsan azpian zegon txingarra sugarretan jarri dozu. Gaur be *Auspoen auspo* egiten lanean zabiz jo ta su, auspoen auspo ta aize danen auspo be ez al zara zu?

- 4 Bertsolariak kantatukoak
asko marabillak dira,
gure bertsoa beti egon da
bultzatzailleai begira.
Ilunetan or zegon bertsoa
atera dozu argira,
eta gaiñera emon dautsazu
urregorrien dizdira.
- 5 Bertso-arlo bat izan gendun lez
aizetan gora joana,
ta zeu zara bat aizerik aize
billa ibili zarana.
Billatu be bai asko ta asko
or galdutzat izan zana,
lan gogorretan ez da ausartzen
amorerik ez daukana.
- 6 Idazlariai emoten dautsez
lanagaitik iru lauko,
beste inñondik ez balitz geio
tintarentzako bez naiko.
Ostantzean zuk ez dozu bear
ezer biotzarentzako,
bada biotzak sentimentuen
berezko indarra dauko.
- 7 Fariseoa beti dogun lez
arroputz eta abilla,
bere atzean jartzen dau beti
kementsua ta abilla.
Baiña biotza ez dabilen lez
oore ta txalo billa,
mundua argi erabilteko
ori dogu marabilla.

- 8 Zuk sortu zendun gure *Auspoa*
txingarrai autsak kentzeko,
baita be orain beste auspo bat
putzari putz egiteko.
Lan bikain ori izango dan lez
istorietan betiko,
erriak badau itxaropena
izan zana izateko.
- 9 Arroputz batzuk agertzen dira
eurak oore artzeko,
zure arloko lanak olako
elbururikan ez dauko.
Zure muga da zeure lanakin
besteena aupatzeko,
eta guztia izan daitela
erriaren onerako.
- 10 Euskeran alde lan egitea
bein izan zan bide latza,
alan da guztiz jorratu dozu
gure euskaldun baratza.
Zuk erriaren alde egiña
da oso lan aberatsa,
eta lan ori dogu benetan
erriaren esperantza.
- 11 Zoritxarrean munduan dan lez
asko itxua ta gorra,
igaro dozun lanbide ori
izan da oso gogorra.
Gogorrak ez dauan lez bildurtzen
egundo gizon jatorra,
zeure kemenez lortua dozu
elmuga zendun tontorra.

12 Munduan artzen ez dan saria
artuko dan lez zeruan,
zerbait murriztu egin leike au
artu ezkeru munduan.
Zeruetako sari bakar au
artu bear dan orduan,
zuri Jainkoak ez dautzu esango:
"Munduan artu zenduan".

13 Atsegiñagaz ikusi eta
bertan izan zan giroa,
esan geinke, bai, salbatu dala
gure erriaren geroa.
Ondo ta zuzen bota dozu zuk
zeure lanaren tiroa,
bertso oneikin artu egizu
Bizkaiko txalo beroa.

Ama Euskerari

- 1 Niretzat izango litzakena
benetan oso tristea:
nire euskera maitean jaio
eta erderan iltea.
Ama Euskera, biotzez nai dot
zure seme izatea,
enaizu iñoz, ez, alderatu,
Ama Euskera maitea.

- 2 Bertsolariok gogoan dogu
euskera gaixo dagola,
baiña erriak jakin daiala
arduratuten garala.
Eta diñogun au azaltzeko
ez da errazoi makala,
bertsotan egiten dan artean
euskera egiten dala.

- 3 Gaur gazte askok egin dabena
nai daberen bidea artu,
esango neuke asko ta askok
egin dabela erratu.
Ba nai badogu bertso errikoi
benetakoan jarraitu,
lengo bertsoak jatorriz daukan
ari ori ez apurtu.

4 Danon indarren bearrean da
gure aberri laztana,
ta geuk bakotxak egin dagigun
bera zaintzeko al dana.
Bertso kantari jarraitutea
da bertsolarien lana,
biotz barrura sartzen dalako
bertsotan esaten dana.

5 Gaurko baserri asko baserri
diranik ezin da esan,
lau orma zarrak ikusirikan
sasi eta euntzorritzan.
Orixe jaunak esango eban:
"Au baserri bat izan zan";
eta nik diñot: "Baserri artan
familiar bat bizi zan".

6 Jesukristo be errubako zan,
erru danak beretzako,
euskerari be orren antzeko
gauza bat jazotzen jako.
Gure euskerak politikagaz
zer ikusirik ez dauko,
baiña beti da atxakiren bat
errubakoa ilteko.

7 Arduradunak saiatzen dira
euskerea il ez daiten,
jo ta ke dabiz ikastoletan
umetxoai irakasten.
Baiña eskolan ikasi ori
ez badabe erabilten,
ikastolako ikaslek eurak
itxiko dautsie ilten.

8 Erdeldun batzuk nai dabena da
gauza itxusi tristea:
gure euskeran jaio giñanok
euran erderan iltea.
Baiña au izango litzaken lez
duin bere ez izatea,
guztion arte zaindu dagigun
gure euskera maitea.

Illetak

Edozein illetan:

Eriotzeak ebagi eta
gorpuztik arimak alde,
gorputzarentzat ilunabarra,
arimarentzat sorkalde.
Fedean dogun aberastasun
andienetaiko bat au de:
Zeruko Aita egiten dala
arima guztien jaube.

Samin ta negar itxi dau baiña
agur ein daben etxean,
atsegin be bai, Zeruko Aita,
Zeugana zeruratzean.
Lapraskadarik izan badau be
mundu ontako aldatzean,
Zeruko Aita, parkatu eta
artu zeure baratzean.

*Zeanurin, Jose Mari Artetxe bertsolari eta laguna-
ren illetak ospatu ziranean:*

Bai, Jose Mari, zu izan ziñan
gizon oso-osokoa,
gure erria aupatutean
berba gozo-gozokoa.

Zutzat bakarrik izaten ziran
erria ta Jaungoikoa,
Alguztidunak emon daizula
atseden on betikoa.

*Anton Landajuela, gudari zar trebea, tenientea,
bizimodua ateratzeko euskal idazlea, Arratiakoa,
bere illetan:*

Lagun zar Anton, gure agurra
bertso batez abestute,
zuk izan zendun trebetasunak
benetan merezi dau te.
Bizi guztia igaro zendun
lan, kartzela ta gerrate,
alan ta guztiz Jaungoikoaren
borondate danak bete,
Zeruko Aitak artu zaitzala
eta agur, gero arte!

Juan Ajuriagerraren illetan:

Ai, bai, lagun Ion, zu izan ziñan
benetako gudaria,
zure zain dagoz gudari asko
ta Agirre lendakaria.
Uso antzera eroaiozue
gure erriko barria:
naita naigabe ugari izan
bidi dogula erria.

*Jose Antonio Agirreren neskame izandako bati,
beraren illetan:*

Munduko bizitzea
igaro lotuta,
baiña aberriari
ondo serbituta.

Jaunak dauko zerua
zuretzat gertuta,
garbi jokatzearren
merezi dozu ta.

Lagun atzeratu baten illetan:

Zeruetara pasadizoan
gatoz mundu onetara,
Jainkoarenak gara guztiok,
bardiñak iñor ez gara.
Zu, lagun zarra, igaro zara,
bai, zeu be zeure erara,
Jainkoarentzat beste guztien
antzeko izango zara.

Imanol Goikoetxea Luno-Bilbao adiskidea il zanean:

Bai, zu, Imanol, lanean giñan
arañegun alkarrekin,
langille lagun bikaiña ziñan,
zuk geiago ezin egin.
Ixtripuz atzo il zareala
larriz egin dogu jakin,
zure taldea ez da aztuko
egundo bere zurekin.

*Nire lagun baten loba baten illetan. ezbearrez
amar urte eukazala il zanean:*

Zeruko Aita, orra doatzu
sendi bateko kutuna,
aingeruakin alai-alairik
Zu aintzatuko zaituna.
Iñola ez da beteko baiña
emen itxi dun utsuna,
baiña gogotsu iskintzen jatzu
Zeuretzat bear dozuna.

Samin ta negar itxi dau baiña
agur egin dun etxean,
atsegin be bai, Zeruko Aita,
Zeugana zeruratzean.
Landaratxo au atera dozu
mundu ontan loratzean,
betiko frutu izan dagizun
sartu zeure baratzean.

Meza santuan

Asieran:

Eguzkiak lez urruturikan
ekaitz gaizto eta laino,
maitasunaren berotasunaz
dator Jesus geuganaino.
Onek diñosku Jaunan grazia
badogula oraindiño,
serbitzariak garan ezker
zer era obe au baino,
gure otoiak joan daitez
zeru-goienetaraino?

Joko zikiñak ikusten dira
zoritarrez gaur edonon,
Jainkoari ta deabruari
biei errazoia emon.
Baiña Ebanjelio santuan
zelan idatzita dagon?
Jainkoakin ta deabruakin
biekin ezin da egon.

Jaungoikoaren etxe santuan
gaur egin gara alkartu,
meza santu au asi aurreti
egin gaitez an autortu.
Geure arteko kezka guztiak
bertan alkarri parkatu,

asmo sendo au ez dakarrena
alperrik ez emen sartu.

*Indautxuko jesuitetan, Pazkoazko erri-mezan,
meza aurretik kantau nebana:*

Alkartu eta poztu gaitezan
meza santua entzuteko,
meza santua azken aparian
Kristok jarria dalako.
Bere ordezkoa gerturik dago
berbera barriztuteko,
Kristo bera da meza esaille,
abadea bitarteko.

Ez naz orotzen beste au non kantau neban:

Egun andi au asi dagigun
kristau zintzoen antzera,
emen gatoz gu abadeakin
meza ontan alkartzera.
Onek ekartzen dau poz andia
kristauaren biotzera,
Jesus Jauna be etorriko da
oraintxe geure artera,
egun andi au igaro daigun
danok Beragaz batera.

Oparian:

Zeruetatik etorten jaku
eguzkia ta euria,
bere bitartez dogu munduan
frutu eder ugaria.
Ori eskertzen agertzen jaku
kantari alai txoria,
Zeruko Aita, guk gizonok be
egin nai dogu geuria,

abade jauna bitarte dala
artu gure oparia.

San Migel eguneko meza baten:

Gure San Migel Jaungoikoaren
gudari leial izan zan,
Luzifer arro jaso zanean
Aitaren alde jaso zan.
Gaur be gogotsu eskau daiogun
ospatzen gagozan mezan,
mundu ontan be jaso daitela
danok askatu gaitez.

Arimen aldeko otoian:

Kristauarentzat meza santua
otoirik ta ederrena,
bere barruan sakonena da
zati ontan dakarrena.
Une onetan egiten dogu
il ziran alde omena,
Zeruko Aitari eska daiogun
danentzako atsedena.

Izurtzan kantatua:

Meza andi au izango al zan
entzule danon gogoko,
Jaungoikoakin bat egoteak
neurrik ez daukalako.
Bada bera da eguneroko
indar barriak artzeko,
eta azkenez Jaunak diñosku
bake santuz joateko,
geuk be berari emon daitzegun
biotzez eskerrik asko.

Esker emotea:

Ordu erdi bat geugaz egonda
au diñosku azkenean:
“Joan zaitetze bake santuan,
zintzo ta maitasunean”.
Egille eta Artzain onenak
orrela diñoskunean,
gitxienez be ein bear geunke
jarrai bere esanean.

Gaurko mundua

- 1 Gaurko munduan zapaltzaille ta traiziño dan lez edonon, epaitzailletzat bear litzake aldi bateko Salomon, gaurko burrukai egin dagion biei errazoia emon, ia orrela argitzen badau errazoi ori non dagon.
- 2 Nazkagarri ta lotsagarri da gaur egun ikusten dana: fanatikoak egiten dabe juezarentzat dan lana. Eta ori da Jainko-legean justizientzat orbana, eun kintel kare bizi botata desagertuko eztana.
- 3 Bai badakigu tiroz ilteak ez dirala krimen onak, baiña txarrago dira asko be tortureakin emonak. Bat eta beste dira benetan arrigarrizko krimenak, Jesusek berak esan daijala zeintzuk diran andienak.

- 4 Agintaritzan dagozan batzuk
ikasten dabe ostuten,
eta orrela gure erriak
ez dira aberastuten.
Gizon orreitan kontzientzidun dan
listorik ez da ikusten,
gaur edo bier jakingo dala
ez dira konturatuten.
- 5 Mundu guztiak ikusi daian
mendian il eben Kristo,
eta gaur barriz zeldan zigorrez
edo baiñerean ito.
Eta orrela ez bada ilten
tiro bat emon ta kito,
ta iltzailleak eroeak lez
aske eta señorito.
- 6 Gaur politiko askorena da
iskindutakoa aztu,
diru artean sartu orduan
al daben guztia ostu.
Jaunok, izan nai ez badozue
lapur ta madarikatu,
bakezaleai bakean itxi
ta ez gaitzuez txoratu.
- 7 Eredu izan bear leukenak
agintariak izanik,
asko dira gaur eurak jarriko
legeak bete ezinik.
Au ikusirik oin bardin tinko
indartsu auxe diñot nik:
ez daukagula legerik edo
ez dagoala gizonik.

8 Begi aurrean ikusiakin
sartu leiteke bildurra:
jakitun askok egien aurka
gaur sartzen dabe muturra.
Ta maltzurkeriz ipinten dabe
egi itxuran guzurra,
guzurrai emon errazoia ta
egi onari egurra.

9 Agintariak aginduteko
daukie joko doblea:
bake santua aitetu baiña
gora jasorik sablea.
Indar askogaz aupatzen dabe
Jesukristoren legea,
baiña praktikan deabruena
au dabelako obea.

10 Egin bearrik bearrena da
bake santua lortzeko,
diñotseguna: ganean dogun
oin astun ori kentzeko.
Eurantzat bada bake santua
geu lotuak izateko,
bide ortatik gure bakeak
atea itxita dauko.

11 Mundua eta bertan dagona
gure Jainkoak egin du,
eta Jainkoak emondakorik
iñok ezin leike kendu.
Baiña bakotxai emondakoa
bakotxak bear dau zaindu,
berak bakotxai emondakoan
iñok ez daien agindu.

- 12 Mundu onetan nai andi izan
nai ondasun asko euki,
premiazkoa euki ezean
izan leiteke erruki.
Azken orduan andiena be
biurtu leiteke txiki,
eriotzea datorrenean
ondo ilten ez badaki.
- 13 Gure Jesusek aberats bati
esana ondo aditu:
"Zabaldu zeure ondasunak ta
nire bidean jarraitu".
Aberats orrek lepoa emon
ta lengo bidea artu,
ori baiño be txarragoa da
txiro danak menperatu.
- 14 Aberats askok egin dauskue
Kristoren dotriña ostu,
gero guztia arakatu ta
nai dana bakarrik artu.
Gizon ondrea engaiñatzeko
deabruanakin nastu,
guzurrezkoa on artu eta
egiazkoa guzurtu.
- 15 Gaurko mundu au aurkitutzen da
laiño baltzez estalduta,
ta gizon asko laiño artean
euran iparra galduta.
Anai guztiok, jarri gaitezen
zuzentzeko alkartuta,
zintzo jokatzen daben erria
oraindik salbau leike ta.

- 16 Kontzientzian zaindu bear dau
gizonak bere eritxi,
eta kalumni edo guzurra
egi-itxuraz ez jantzi.
Bera berean ziur badago
gogortasunagaz eutsi,
bada gaur ontzat artu ez arren
artu leike bier etzi.
- 17 Mundu au dogu batzuentzako
leguna eta erreza,
beste batzuntzat guztiz samiña,
gogorra ta aldrebesa.
Batzuek uger ondasunetan,
beste askok ezer eza,
kontzientzia izango dogu
ortan azkenez jueza.
- 18 Gizon batzuek euran agintzan
jokatzen dabe ain zikin,
eta ez dago agintze onik
olako gizonarekin.
Esaereak argi diño ta
au guztiok ondo jakin:
azken garbira ez dala eldu
iñor atze zikiñakin.
- 19 Gaurko munduak amurruz dagon
piztiaren antza dauka,
erdi inguru aurkitutzen da
beste erdiaren aurka.
Alde bata da pizti antzera
aginke eta erpaka,
eta bestea abereak lez
ostikoka ta adarka.

20 Agintariak euran lekuan
dauke lepalpen astuna;
bear dan legez emon bearra
erriari erantzuna.
Orretarako bearrezko da
lenengo izan gizona,
danen ganetik agertuakin
gizonen gizontasuna.

21 Agintari ta eliz-gizon ta
danok bakea eskatzen,
baiña indarrak au lortuteko
argi ez dausku jokutzen.
Eta indarren biotz gogorra
ezpada zerbait biguntzen,
or egon ziur bide ortatik
bakerik ez dala lortzen.

22 Andi batzuek guztia sobran,
asko gosez ta negarrez,
biziteko lain ez daukienak
ezbear eta naigabez.
Iru-lauk dauke larregi eta
besteak barriz ezer ez,
au iñorentzat ez da ona ta
gogoan artu mesedez.

23 Engaiñutikan otza dator da
egiagandik beroa,
eta beroak bultza egiñik
au esatera naroa.
Engaiñuakin egiten danak
bide onik ez daroa,
eta begira zer izango dan
ortik datorren geroa.

- 24 Geure artean dogu zezena
or adarkadak emoten,
eta berari adarretatik
iñok ez dautso elduten.
Bat eta beste kostako jaku
zezen ori geldituten,
guztio alkar berba eginda
geu ez bagara aituten.
- 25 Gizonak alkar galdu dabe ta
errespeto ta lotsea,
beretzako dan paradisia
biurtu zoro-etxea.
Bere eskuetan eduki eta
zorionaren giltzea,
lelokeririk andiena da
eskuan dana galtzea.
- 26 Beti agindu nai daben batzuk
or dabiz ekin ta ekin,
euran poltrona ez galtzarren
nai eta jokatu zikin.
Baiña lelotzat gagozan ok be
au ondo dakigu jakin:
gauza garbirik ezin leikela
lortu joko zikiñakin.
- 27 Gure munduak gaur arte beintzat
istori txar asko dauko,
ta zoritxarrez argi andirik
ez dauka aurrerantzako.
Merezi ez dun indar gaiztoak
askatasuna badauko,
askatasunik ez da izango
merezi dabenentzako.

- 28 Munduak beti emoten dausku
frutu ederra ta asko,
ondo bananduko balitzake
naikoa guztiontzako.
Baiña batzuek artzen daben lez
iñona be eurantzako,
txiro umillak aurrerantza be
txiro jarraitu bearko.
- 29 Nazkaturikan dauke erria
gaur diran zikinkeriak,
eta geienak egiñak dira
dagozan agintariak.
Ain direan lez atz andikoak
igarri dautse erriak,
atz ori ondo susmatzen da ta
zabaldu barik begiak.
- 30 Batzuek esaten daben berbeak
ez dau balio ezer be,
iskindutean ez diralako
esaten dabenen jabe.
Poltrona ori lortu artean
edozer iskintzen dabe,
ta gero asko gelditzen gara
iskindua artu gabe.
- 31 Mundu onetan sortzen dan danak
dau bere eskubidea,
bizia artzen daben guztiak
eta bakotxak berea.
Au aldatzeko ez da naikoa
ministro nai erregea,
iñok ezin dau aldatu eta
Jaungoikoaren legea.

32 Mundu onetan gizonak beintzat
sari bat baiño ez dauko,
eta munduan irabazia
izango dogu betiko.
Eta bizitz au laburra dan lez
zintzo jokatu lortzeko,
orain ez bada geio erarik
ez dogulako eukiko.

33 Munduan gizon guztiok gara
anai eta gizarteko,
eta munduan dogun guztia
dogu guztiorentzako.
Jesukristoren dotriña da
ta berak esanda dauko:
emen aberats lapurra dana
zeruan ez da sartuko.

Balendin Enbeita

Balendin Enbeitaren omenaldian, Donostian:

Aizu, Enbeita, gure bertsoa
egon zanean gaixorik,
zuk bertsoetan jarraitzen zendun
beti adorez beterik.
Omen eder au merezi dozu,
ezta nik esan bearrik,
Gipuzko aldean zaindu ebien
Uztapidek ta Basarrik,
baiña Bizkaian zuri eskerrak,
zuk zaindu zendun bakarrik.

*Balendin Enbeitak txarri-afari batera inbitatu
nindunean, nik bialdua:*

Lagun Balendin, inbitau nozu
zure txarri-afarira,
baiña zurea eta nirea
or egun berean dira.
Zurekin pozez izango nintzan
suertatu ez balira,
on egin eta alai igaro,
ez egon neri begira.



Balentin Enbeita, nire biotzeko lagun on zarra, bere bizitzako azken bertsoak kantatzen, nire omenaldian. Aita Lino Akesolo zana beste aldean. Neu erdian.

Muxikan, Enbeitari iskindutako omen-afari batean:

Gure Balentin aitaturtean
bearrezko da bertsoa,
gure bertsoa izan zalako
bere bizitza osoa.
Aren bertsoa beti izan zan
gogorra baiña gozoa,
gure erriko kultur-arloan
kementsu ta ganosoa,
a gelditzeko etzan naikoa
bonba ta kaiñonazoa.

*Bilboko Arenalean, Balendin Enbeitaren irudia
jarri eta agertu zanean:*

Gure Enbeitak agertu eban
beti euskaldun itxura,
jarraitu be bai bide zuzenez
arbasoaren oitura.
Baita zaindu be oso kementsu
gure erriko kultura,
bere irudi emen daukagu
jasorik bere lekura,
gero mundua amaitzekoan
Arenaletik zerura.

Lagun Enbeitaren illetan, Muxikako elizan:

Nire begiak negar ein dabe
eta biotzak irikin,
azken agurra geure bertsoan,
nire lagun zar Balentin.
Euskal Erriak ikara egin dau
zure aldakuntzarekin,
zuk egindako lan frututsua
errez ezingo da jakin,
gure Jainkoak geio nai badau
zeruetan bere ekin.

Balentin Berriotxo

1 Kain gaitzoa izan zanetik
or gaurko egunetara,
martiriekin beteta dagoz
munduan ainbat altara.
Egun oneitan aintzindariak,
bai, bizkaitarrok geu gara,
gure Balentin jaso dalako
gorengo mailla ortara.

2 Gure Balentin gaztetatik zan
umilla eta apala,
Jainkoarentzat lortu nai eban
arimen mundu zabala.
Jakin daiela mundu guztian
Balentin euskaldun zala.
ta euskaldunok Euskal Erriak
santu andi bat daukala.

3 Aitak etxean nai izan arren
arotzian laguntzeko,
Jaunaren deia artu eban lez
au ez zan bere barruko.
Ejerzitu bat jarri bazan be
beretik aldatuteko,
erabakia arturik eukan
au aitak esan orduko.

- 4 Gaztetxotatik eukan berotan
biotz barruko txingarra,
bere barruan sarturik eukan
zeru ganeko izarra.
Ta izar orrek argitaratu
non zan zeruko iparra,
eta orrela betetu eban
munduko egin bearra.
- 5 Jainkoarentzat arima billa
maitasun ta oraziño,
naita bidean beti aurkitu
sasi, arantza ta laiño.
Ori zan bere asmo bakarra
bizia emoteraiño,
eta bizia emon ezkeru
ezin geio ori baiño.
- 6 Bertsotan esan al bada beintzat
zer diran gure santuak,
esango neuke eurak dirala
Jainkoak berak autuak.
Bakotxak doguz geure argiak
Jaunagandikan artuak,
baiña santuak daukez aparte
mirarizko merituak.
- 7 Bai izan ziran samin ta negar
Balentin il zan garaian,
baiña gaurkoan alaitasuna
Erroman Pedron zelaian.
Auxe berau zan Elorrion be
egun andi ta alaiian,
gaurtik santu bat daukagulako
Balentinekin Bizkaian.

- 8 Munduarentzat zorion billa
maitasun beroenakin,
baiña Tonkin-en bere asmorik
jentilek ez eben jakin.
Txartzat artuta samea kendu
ezpata aundi batekin,
zer egin eben ez ekien ta
danei parkatu, Balentin.
- 9 Euskal Erriak zorionean
oso santu onak ditu,
euron odola daroagunok
au bear dogu aitortu.
Santu-bide au gogorra dogu,
nork ezin leike sinistu?
Baiña garaitza lortu nai bada
geure santuei jarraitu.
- 10 Euskal Errian ez doguz baiña
geure santuak ugari,
daukaguzanak oso aundiak,
eroe edo martiri.
Bizkaian da gaur gure Balentin,
eskerrak Elorriori,
aurrerantzean izango dana
Bizkai osoko zaindari.

(1988-VI-19)

Erriaren seme txarrak

- 1 Gure erriak igaro dituz
samiñak eta negarrak,
eragin eta gu zapaltzera
etorri ziran indarrak.
Kanpoko eta barrukoak be
guztiak ziran zantarrak,
baiña kalterik geien egiñak
erriaren seme txarrak.

- 2 Burukideak poltrona truke
saldu dira Madrillera,
gure maisuan irakatsiak
itxirik alde batera,
Sabinotarrak itxartu eta
arduratzen ez bagera,
bere dotriña aztuko da ta
azurrak Eskorialera.

- 3 Erriarentzat zeaztasun bat
iñoz ez dabenak euki,
errian buru agertu dira
asko poliki-poliki.
Ta artu be bai meritu barik
goiko mailla edo aurki,
beste gerra bat sortuko balitz,
Euskadi, zure erruki.

4 Errian alde ein bear balitz
tiroka edo burruke,
batzokietan gaur diran askok
eusko odolik ez dauke.
Sabin maisua orain barriro
etorriko balitzake,
batzokietan gaur daukaguzan
asko kanpora ostike.

5 Batzuk eurantzat esaten dabe
eurak ez daukela utsik,
kasu orretan gaur ez da falta
gaizto eta arropuzik.
Euran aldera izan ezkerro
deabruagaz be pozik,
eta Jainkoa bera be txartzat
euran alde egin ezik.

6 Gure erria zoriontsu zan
libre izan zan aldian,
zuzen ta alai bizi zan beti
bere lurralde garbian.
Baiña galatza sartu zanean
bertako lorategian,
zapo baltzak be sartu zirean
txori alaien kabian.

Geure bidea

- 1 Munduan dogun bizitzea da
zerurako pasadizu,
eta mundu au jarria dogu
bertarako arri-pozu.
Arri orretan egiten bada
lapraska edo tropezu,
bere mugara eldu baiño len
gelditu bearko dozu.

- 2 Mundura gatoz igaroteko
pasadizuko denpora,
baiña begitu zertarako ta
baita nondik eta nora.
Gogorra dogu au ausnartzeko
baiña begiratu gora,
ta fede onek iraun daiala
urrengotik urrengora.

- 3 Mundu onetan geure bidean
izar bat dogu dizdira,
ta ikusteko geure begiak
zuzendu bear argira.
Bada itxuan baldin bagoaz
loikeriari begira,
zikinkeriaz lortutakoak
inpernurakoak dira.

- 4 Munduan onik egin al bada,
nai izan asko nai gitxi,
al dogun arte egin dagigun,
egin bagerik ez itxi.
Urkoarena errespetatu
ta nork bereari eutsi,
oillo giñala esan ez daien
gero bier edo etzi.
- 5 Jesukristoren dotriña dana
egiten dogu sinistu,
oberik ez da iñon bere ta
ez dogu nai bera nastu.
Tema orretan euskal kristauak
zer naiago dun begitu:
zikiñarekin salbatu baiño
garbiakin kondenatu.
- 6 Zorionean sortuak gara
geurea ez dan munduan,
eta al dana egin dagigun
Uzabak nai daun moduan.
Geuk al doguna egin dagigun,
egin al dogun orduan,
ezin danean esan dagigun:
"Al zana egin genduan".
- 7 Gaur ikusten dan naste borrhastek
bat egiten dau nazkatu,
baiña nozepein egiten jaku
argi-izarra agertu.
Naita laiño baltz eta guzurrak
zapaldu eta zigortu,
zintzo diranen itxaropena
iñoz ezin da agortu.

8 Joan Paulok dauku biotz andi bat
itxaso zabal antzeko,
ta bertan dauka leku txiki bat
Euskal Erriarentzako.
Iru-lau berba ikasi zitun
euskaldunoi esateko,
istorirako izango diran
lau berba urre gorrizko.

9 Gure Joan Paulok lurralde asko
anaikor bisitau ditu,
bertako lurra zapaldutean
auspeztu eta mosutu.
Erri danetan egin arren be
Euskadin etzan makurtu,
ikusten danez Euskal Erria
erritzat ez eban artu.

10 Espaiñiako abade asko
il ziran fusilaturik,
merezi be bai ta gaur daukaguz
altaretara jasorik.
Euskadin be au igaro eben
ainbat abade martirik,
santuen maillan ezartzekoak
iñon badogu santurik.

11 Abade asko bildur diran lez
gauzak diran lez esaten,
zoritxarrean asko ta asko
asi da fedea galtzen.
Lendik barruan daukagun zarrok
ez bagoiaz be aldatzen,
zail izango da gaur daukaguzan
gazteak elizaratzen.

- 12 Gauza andia gizonarentzat
bera beintzat salbatzea,
baiña geiago lagun urkoa
salbatzen parte artzea.
Gizon guztiok zerua dogu
gure betiko etxea,
lelokeririk andiena da
eskuan dana galtzea,
- 13 Gizonak zerbait jakin naiean
egiten dau alegiña,
ta lortu dituz teleskopio,
Apolo ta egazkiña.
Baiña au dogu gizonarentzat
autorkuntzarik aundiña:
iñoz ezingo dabela lortu
azkenik bako urriña.

Bakearen alde

- 1 Gizonak alkar aitu gaitezan
errazoiz ta aoz ao,
ori dalako bide zuzena,
ni beintzat orretan nago.
Eta bakea lortu dagigun
geroa baiño lenago,
bada guztia ondatzen bada
gerorik bere ez dago.

- 2 Andi ta txiki, agintari ta
obispo bake eskatzen,
ta zelan lortu jakin arren be
iñok ez dausku esaten.
Batak besteai erru botata
or dabiz zirkulu baten,
ez da lortuko zapaltzailleak
ez badirade biguntzen.

- 3 Parkaziñoan alde daukaguz
obispo ta Aita Santu,
eta ori da birtute on bat
bear doguna onartu.
Baita beste bat be bada ona:
alkarri errespetatu;
errespetoa gugaz badogu
ez daukagu zer parkatu.

- 4 Alderdi batek eskatuten dau
oiuka bake santua,
eta besteak "Emon eidazu
lenen zeuk neuri ostua".
Borroka ortan zabaldu ezik
indarrak bere eskua,
ezingo dogu ezelan kendu
gerrarako arriskua.
- 5 Agintaritzan aurkitzen dana
beti bake eske dago,
gerraren aurka jartzen da beti
danak baiño aurrerago.
Bere poltrona bertan galtzeko
arrisku baten balego,
ordun naiago gerra zantarra
au galdu baiño lenago.
- 6 Zapaltzailleak agertzen badau
gorrotoz indarkeria,
menpe dagonak agertu bear
azalez apalkeria.
Baiña menpean dagon artean
izango da gudaria,
zigorrez ez da osatzen eta
biotz barruko zauria.
- 7 Kalte andiak ekarten dituz
alkar ikusi eziñak,
ainbeste edo geiago dira
indarkeriak egiñak.
Jakin daiela arroputz eta
baita be buru ariñak,
burua eta txapel-lekua
ez direala bardiñak.

- 8 Indar danakin kondenatzen dot
kondenagarri tristea:
edonun jarri lergailluak ta
andra ta ume iltea.
Kriminalkeri andiena da
onen ondoan bestea:
lenen esku ta oiñak lotuta
garrote vil emotea.
- 9 Kurutz santua daukan erria
goiko mendi gaillurrean,
menperatua dogu gaur egun
eta zigor gogorrean.
Zu maitasuna zabaldu nairik
anai arteko lurrean,
baiña bakea nai ez daun asko
aurkitzen dogu aurrean.
- 10 Gizonak bakez izan nai badau
mundu ontan askatua,
beragan dauko eskubidea
sortzean bertan artua.
Ta gero barriz biurtzen bada
zapaldua ta lotua,
zapaltzaillea beti-beti da
gizon madarikatua.
- 11 Euskal Erria beti izan da
umilla ta baketsua,
baiña berea zaintzeko beti
gogorra eta zantzua.
Gizon artean aituteko be
ez da gorra, ez itxua,
augatiño dau bere bizitza
argia ta mamitsua.

- 12 Joko zikiñak ikusten dira
zoritxarrez gaur edonon,
Jainkoari ta deabruari
biei errazoia emon.
Baiña Ebanjelio santuan
zelan idatzita dagon,
Jainkoakin ta deabruakin
biekin ezin da egon.
- 13 Igaro gendun gerra zantarra
tiroz amaitu zalako,
gorrotoakin amaitu zan da
oraindik zauria dauko.
Eta zauri au izan ez daiten
erriarentzat betiko,
osatu daigun edo bakerik
iñoz ez dogu eukiko.
- 14 Gotzaiñak eska militarrari:
"Ai, arren zaindu nagizu";
eta erantzun: "Zainduko zaitut
bedeinkatuten banozu".
Jesus aldatu aurretik eta
Judaseri emon mosu,
egiari ta errazoiari
bonba ta tiroz jo ta su.
- 15 Erbestetarrak sartu jakuzan
euskaldunari etxean,
arma zantarren indarrarekin
artuak giñan menpean.
Eta gorrotoz diñosku gaur be
ez gagozala bakean,
bakerik iñok ez dau emoten
menpean dagon artean.

- 16 Danok dakigu espaiñatarrak
euran menpean gaitula,
alan da bere jakin daiela
gorrotorik ez dogula.
Guk borrokarik ez dogu asi
iñorekin ta sekula,
eta bakea gura dabenak
bakean itxi dauskula.
- 17 Ez gizon eta ez emakume
ez garan lez onak danok,
zirikatuak izaten gara
bakez bizi nai dogunok.
Txori guztiak or dagozan lez
bildurturik lau arranok,
era orretan dauke mundua
lau lotsabako marranok.
- 18 Tiroz amaitzat izan dan gerrak
odola dauka biztuta,
egunen baten jagiko dana
bere indar barriztuta.
Zein burubako egon leiteke
amaitze au sinistuta?
Au da egia: lenengo gerra
oindo ez da amaituta.
- 19 Erria dogu alkar borrokan
gorrotoz amurruturik,
ta bitartean famili asko
txarto samiñez beterik.
Alkar diñotse: "Alperrik zabiz,
ez dozu ezer lortzerik".
Alkarrizketarik ez badago
or biak dabiz alperrik.

- 20 Gerra guztien erruak dira
munduan indarrarenak,
euranak dira beti egiak,
guzurrak argalarenak.
Baita gaiñera artu bear be
zigorrik ta gogorrenak,
ta frutu onik ez dakar iñoz
zigorretik datorrenak.
- 21 Indarkeriak beti egin dau
argala menpean artu,
ixilik eta umil ez bada
kartzela batera sartu.
Sakratuaren aurrez jarri ta
egin leike juramentu,
indarra baiño zantarragorik
munduan ez dala sortu.
- 22 Amatxo batek seme guztiak
alkar ta ondo nai ditu,
baiña semeok gaizto gara ta
ezin gara alkar aitu.
Eta amari bere oiua
ez dautsagu nai aditu,
ta deabrua adi dagon lez
danok atrapatzen gaitu.
- 23 Nazio baten iztegietan
itz ugari dagolako,
sarri askotan egi antzera
apaintzen da guzur asko.
Argi andirik ez dan lez bear
bistan dana ikusteko,
gaur erritarra itxarrik dago
ipuiñak arrazoteko.

- 24 Erri andiak erri txikia
menpean euki nai dabe,
ori dala ta gure erriak
bai dauka naiko naigabe.
Eurak dituez eskubideak,
gu barriz orixe gabe,
eta gaiñera ez dausku ixten
geu garana izaten be.
- 25 Tamala da guk gure gerrea
zer zan be ez jakitea,
tamalagoa zer zan esanda
sinistu ez egitea.
Nik ez dautsat, ez, iñori be nai
or gerra baten iltea,
baiña askori falta jakie
gerra baten ibiltea.
- 26 Arerioa sartu zanean
gorrotoz gure errian,
gudari zarrak jarri gintzazan
benetan giro larrian.
Monumentu bat merezi eta
plaza nausien erdian,
baztertuta lez aurkitzen dira
asko erdi miserian.
- 27 Arerioai aurka egiten
emakume ta gudari,
askatasuna lortu naiean
eutsiten nortasunari.
Gora ta bera begiratuta
argirik ez zan agiri,
igaro ez dun iñok ez daki
urrik emon zer dan ori.

28 Gudari zarrak igaro gendun
gerra zantar bat itzala,
gaurko gazteak askok ez daki
odoltsua izan zala.
Kriminalari ezin dautsagu
agertu biotz zabala,
il zireanak esan ez daiskun
traidore batzuk garala.

Itxaropenik ez galdu

- 1 Eskubiderik sakratuena indar gaiztoak zapaldu, eta umillak errazoiakin aorik ezin zabaldu.
Justiziaren zain da umilla au noz egingo dan eldu, etorriko da egunen baten, itxaropenik ez galdu.
- 2 Eskatzen dabe askatasuna mundu guztiarentzako, baiña urkoa lotu nai dabe askatasun au lortzeko.
Aske zalea izan arren be iñor lotuta badauko, askatasuna eskatuteko eskubiderik ez dauko.
- 3 Euskaldunok zapaldu gaituez gaur arte era askotan, eun da berrogetaka urteak gabiltza borroka ortan.
Eta oraindik anai-arrebak erbeste ta kartzeletan, oba borroka garbi baten il orrela izatekotan.

- 4 Arduraz dagoz galdu ez daian
Espaiñak bere zatirik,
ta arraia or dauke Espaiñak
beti lez oso-osorik.
Esaten dausku geureakin be
ez dogula errazoirik,
au da bakarrik ez dabela nai
zapalkuntzea galtzerik.
- 5 Argi apur bat daukanarentzat
au da guztiz arritzeko,
indar zantar bat jaso zan tiroz
doi argiak ebaitzeko.
Fusilatuak euran erria
maite izan ebelako,
Jaungoikoaren legean orrek
parkaziorik ez dauko.
- 6 Beti gagoz geu alkar iltea
txarto dagola esaten,
ta amurrua amaituteko
ezer ez dogu egiten.
Epai onetan Salomonen bat
ez bajaku agertuten,
era ontako borrokarikan
iñoz ez da amaituten.
- 7 Geure erria benetan dogu
polita eta liraiña,
langillea ta oso argia
ta barrupean apaiña.
Baiña albotikan daukazan lez
Prantzia eta Espaiña,
bien artean ekarri dautse
maltzurkeri ta zizaiña.

- 8 Santu martiri asko il eta
gero bertan bera itxi,
eta kriminal izan ziranak
santu andiak lez jantzi.
Egia da ta esan bear da
nai batzuk ezin iruntsi,
txarrago da ta gaur isildua
jakitea bier etzi.
- 9 Tamalez iñoz gaur egiten da
krimenez Jauna iraindu,
famili asko negarrez jarri
eta erria samindu,
Sarri amari senarra eta
umetxoai aita kendu,
Kainek egin ebanakin be
ezin leikena bardindu.
- 10 Ikusgarririk baldin badauka
ikustez baratz apaiñak,
edertasuna emoten dautse
bertako lora bikaiñak.
Zintzoen fama andia dauko
Ameriketan Espaiñak,
ori guztia emoten dautso
Euskal Erriko artzaiñak.
- 11 Danontzat dagon elmuga dogu
mundu onetan sortuak,
okerrik bada guztiak dira
gizonak berak artuak.
Augaitik dira batzuk kriminal
ta beste batzuk lotuak,
lege txar asko jartzen dituz ta
indar madarikatuak.

12 Urkamendira doanari be
zer esanikan badauko,
garrantzitsua izan leike ta
entzun egin bear jako.
Azken gogoak esan leiken lez
sarriten zer pentsau asko,
istorirako izango zana
galdu leiteke betiko.

13 Gizonak beti bizi bear dau
bere itxaropenean:
zer zoriona itxaro dogun
frutua lortzen danean.
Itxaropen au baldin badago
biotzaren sakonean,
zorion utsa izango dogu
zerura goiazanean.

14 Gure Jainkoak emona dogu
danok geure eskuetan
zorionaren azi-garua
ereiteko lur onetan.
Baiña gizona esker gabe ta
zentzun bakoa benetan:
zorionaren azia ito
eta ez itxi ernetan.

Gorbeiaiko kurutzeari

- 1 Aita Santuak eskatu eta
garaia etorri zanean,
kurutz santuak jarriak ziran
mendirik altuenean.
Gorbeia dan lez mendi eder ta
altua zorionean,
bertan jarri zan kurutz santua
kristauaren izenean.

- 2 Gaur Gorbeian dan kurutz ederra
beso zabalik dizdira,
guztiontzako argi egiten
zeruetara begira.
Mendizaleok goazen alai ta
gogotsu Gorbei mendira,
bada bertatik ikusten diran
danak marabillak dira.

- 3 Goitik datorren argirik barik
ezer ez dan lez ikusten,
an dago beti beso zabalik
bidera argi egiten.
Zuzenbide dan argi ortatik
ez bagara al denduten,
itxaroten dan zorion ori
aurkituko da nonbaiten.

- 4 Gure kurutza an dago beti
eguzki nai edur egin,
guztiontzako maitasunakin
testigu dala Aldamin.
Mendigoizale edo artzaiñik
bizi dan arte Euskadin,
saiatuko da zure izena
aintzatua izan dadin.
- 5 Kurutza orrek iragarten dau
bide zuzenetaikoa,
zuzenbidean onena edo
beintzat onenetaikoa.
Orrez gaiñera esan dagigun
ori ez bada naikoa,
arlotan orretan bazkidea da
Alguztidun Jaungoikoa.
- 6 Mendigoizale eta artzaiñak
mendien alde azaldu,
eta mendiko barri ederra
mundu guztira zabaldu;
eta laiñoak estaldu arren
itxaropenik ez galdu,
bada kurutza an dago beti
naita laiñoak estaldu.
- 7 Eskubidea eta indarra
ez dagozan lez alkarrik,
kurutz santua, zu jaso ziñan
justizia jarri nairik.
Kurutz orretan ixuri zana
izan ez daiten alperrik,
ibilbidea argitu eta
ez gaitzuz itxi bakarrik.

- 8 Beso zabalik agertzen deusku guganako maitasuna.
Gure aldetik zer gitxiago?
Beintzat esker erantzuna.
Argi urria badaukagu be biztu daigun daukaguna,
eta maitatu egin dagigun beintzat geu maite gaituna.
- 9 Gorbei ganeko kurutz santua,
argi ta maitagarria,
zintzo diranen itxaropena,
goizaleen iturria,
zure azpian asetzen dogu goimaitasun-egarria;
zaindu artzain ta mendigoizale ta gure Euskal Erria.
- 10 Mundu ta Jesus eragiteko goi-argia da onena,
bera dalako gizonarentzat zeru goitik datorrena.
naita bertara urreratzea izan aldatz gogorrena,
mendizaleok Gorbeia dogu elmugarik ederrena.
- 11 Gizonarentzat oso gogorra munduko bizi laburra,
eta aurrean gertatzen danak emon leikena bildurra.
Gorbei ganeko kurutz, zu zara bide argi ta samurra,
ta gaur nagusi agertu arren traiziñoa ta guzurra,
azken epaian zeu zara beti justiziaren gailurra.

Zeanuri

- 1 Zeanuri non dan esaten noa
nire lenengo bertsoan,
erri au dago Araba eta
Gipuzkoaren auzoan,
Arratiaren buruan eta
gure Bizkaian altzoan,
Gorbei mendiko egalean ta
bere babespe gozoan.

- 2 Sarri entzun da nolakoa dan
Arratiako zekorra,
beti esan da zekor au dala
txikia baiña gogorra.
Baita nik diñot Zeanurikoa
gogorra eta jatorra,
bertako seme askok lortu dau
gizontasunen tontorra.

- 3 Euskal Errian bai izan dira
seme jatorrak ugari,
au ziur jakin gura dabenak
begira istoriari.
Goratzarreak egiten dautsez
gure Euskal Erriari,
Euskal Erria aitatutean
entzuten da Zeanuri.

- 4 Injenioa be bada emen
naikoa zorionean,
argitasunez eta baita be
arkitetura-lanean.
Etxetxo bat be badogu emen
errekearen ganean,
eta geio be egiten dogu
menesterra dagonean.
- 5 Inguruetan famatua da
emengo lapikokoa:
baba gorria tropezuakin,
baita porru-lapikoa,
otza kendu ta berotuteko
saieski ta guztikoa,
baita gaiñera gozo-gozoa
ezpanak txupatzekoa.
- 6 Jan-edanean famatua da
lenagotik Zeanuri,
edo itandu jan ta edaten
onuntza datorrenari:
Errioxako ardaoa eta
erri bertako janari,
eta gaiñera printzipalena
ona, merke ta ugari.
- 7 Kiroletan be zerbait bagara
naita erronka ez bota,
segalari ta aizkolari ta
jaurtitzaille ta pelota.
Basa-elizak ugari doguz,
ez dakit zenbat errota,
eta io be egiten dogu
bat beintzat martxan dogu ta.

- 8 Kiroletan be izanak gera
entzute aundiko faman,
titulu orreik diruarekin
ez dira erosten dendan.
Segalaritan txapeldun zana
or da Egiluztar Kerman,
jaurtilaria Felix Erauskin,
au izan gendun superman.
- 9 Gure Felixek ez baeban be
maisú asko eta otel,
bakar antzean ibili arren
ez eban jokatu motel.
Zeingeiagokan parte artzeko
artu ebazan lau txantel,
eta lautatik jantzi ebazan
Españako iru txapel.
- 10 Gizon santuak be izan doguz,
bat Ijinio Artea,
biotz andi bat euki ebana
birtutez bete-betea.
Ondarrik bako sakona eukan
fede ta borondatea,
egitetatik agertu eban
zer dan santu izatea.
- 11 Nik bera lako gizonakgaitik
ezin esan neike asko,
gizon artean apartekoen
antzeko izan zalako.
Zeanurik bere semeai esker
altura andia dauko,
Ijiniokin beste mailla bat
goragora jasoteko.



*Bertso kantari, Zeanurin. Ezkerretik Deunoro Sardui,
Jesus Mari Sardui eta neu.*

- 12 Jaun Ijinió egon zanean
bere familia azten,
etxetik kanpo bota eben da
zegon larrialdi baten;
eta bizia dagon artean
bizi bearra nonbaiten,
azken urteak igaro zitun
Saldrapoko Errekarten.
- 13 Gizon artean asperturikan
igesi eban mendira,
Saibegan eta Gorbei mendiko
kurutza bien erdira,
bakardadean bakera eta
zuzenbideko argira;
antxe bizi zan zeruko deia
noz etorriko begira.
- 14 Eliz-gizonen arloetan be
bat gendun arzobispoa:
Aita Zulaibar praile jatorra,
ordenaz dominikoa,
Asian eta Ozeanian
oso mailla andikoa;
ez dakianak jakin daijala
au zan Zeanurikoa.
- 15 Iñozente ta kokotzat dauke
ortik batzuk Zeanuri,
baiña badaki erantzuten be
olako listilluari.
Arroputz orrei saltzen dautsaguz
guzur ta ipuin ugari,
adarra ondo jotén jakie
bai adar-jotzailleari.

- 16 Listillo orrei sartu geuntsien
bein baten ipuin itzala,
esan jakien Txinako gerran
ni jenerala nintzala.
Baita sinistu be egin eben,
ori bai zan astrapala,
konturatu be etziran egin
iñozente egun zala.
- 17 Zeanuri da Bizkaian beintzat
lurrealdez irugarrena,
bere lurrean dauko Gorbeia
mendirik ta ederrena.
Erritarrak be dauke birtute
ona eta bearrena:
beso zabalik artuten dala
gogo onez datorrena.
- 18 Osatzeko ta indartzeko da
Gorbeiko osijenoa,
naturalezak berak dakarren
garbia eta sanoa.
Bertara ez da eldu oraindik
atomiken berenoa,
Gorbeiak beintzat ez dau galduko
eguzkiko ozonoa.
- 19 Gorbeian dagoz aize ederrak
nasaituteko bidiak,
marabillak be ikusten dira
itxartuteko begiak.
Ur onak be bai iturrietan,
preskoak eta garbiak,
ainbat egarri asetzen dituz
Lekaitzko iturriak.

20 Mendizaletan famatua da
Lekaitzko iturria,
uda ta negu bardiñ-bardiña
beti da bere neurria.
Orrek zer pentsau emoten dausku
gogoan eukigarria,
bera dalako penizilina
asetzeko egarria.

21 Egunsentian entzuten dira
txorien kantu alaiek,
goien egazkan aize garbitan
belatxo eta arraiek;
eta lurrean arran-soiñuan
ardi eta basabeiek,
era ortako arrera dauko
Sortzailleantzat Gorbeiek.

22 Uri barru ta mendi ganetzaz
egin daigun konparantza,
uri barruan dauko gizonak
sarri robot baten antza.
Mendian barriz piztuten dira
adimena ta biotza,
orregatiño igon gaitezaz
sarri Gorbei mendirantza.

23 Gorbei orrek be ez dau izaten
urte guztian on utsa,
negu-partean izaten ditu
zurdea eta izotza.
Politago da eguzkiakin
pozez saltoka bildotsa,
danerakoa bear da emen
ezi dagigun gorputza.

Gorbeiaiko artzain zarrak

- 1 Jose Muñegi, Ramon Azkarra
ta Zizilio Erauskin,
guztiak emen jarri ez arren
beste batzuk be eurakin.
Naita estudio eta mapatik
ikasirikan ez jakin,
an biziteko naikoa euken
bertan ikasiarekin,

- 2 Euran otoiak izaten ziran
sarritan mendi ganean,
eta batez be zeru bitarte
garbi egoten zanean.
Zeruarekin komunikatzen
ziran zuzen-zuzenean,
eta orrela biziten ziran
zorionik onenean.

- 3 Egun garbia sortzen zanean
azkenik etzan ikusten,
au ikusirik susmatzen eben
zerbait bazala nonbaiten.
Egoten ziran izar artean
zeru-bidea ikasten,
eta orrela ikasi eben
zoriontsuak izaten.

- 4 Parrokira be jatsiten ziran
bai beintzat urtean baten,
Jainkoari ta kontzientziari
euran kontuak emoten.
Gaur diran lako erreztasunik
orduan etzan izaten,
baiña alan be nai asko kostatzen
utsik ez eben egiten.
- 5 Estudioak jasotzen dituz
gizonak aurki andira,
zoritxarrean danak ez dagoz,
ez, zentzunari begira;
ta zentzuna ta estudioa
alkarrekin ez badira,
estudioak eroan leike
mundua ondamentira.
- 6 Unibertsidade guztietan
da ikaste, estudio,
baiña mendian lañoz ta gaubez
asko ez dabe balio.
Olakoetan eskatu bear
deiadarka ausilio,
eta guztiai erantzuteko
antxe zegon Zizilio.
- 7 Zizilio zan bere arloan
umilla eta apala,
nai txiro izan beti izan zan
biotz ta esku zabala.
Esango neuke mundua lako
biotz andi bat eukala,
eta bai diñot errazoietan
zuzen ta gogorra zala.

8 Zizilio zan patriarka jaun
ango artzain guztiena,
sokorruren bat entzuten bazan
beti adi jarten zana.
Gau erdi baten sokorruka zan
jausi zan baten laguna,
eta bertara urreratuten
Zizilio zan aurrena.

Au jazo zan San Inazio bezpera-gau baten, 1926-
an uste dot. Lagun bi joan ziran Gorbeiara; eta,
gaube ilun eta laino itxuagaitik bidea galdurik,
aurretik joazan laguna farolagaz, jausi ta desagertu
egin zan, eta bestea sokorruka egon zan ordu bete
eta geiagoan; eta beragana lenengo urreratu zana
izan zan gure Zizilio.

Eskerrak emonez

Donostian, 1990-eko urtarrillaren 21-ean omenaldia jaso ondoren.

1 Egun aundia urtarrillaren
ogeitabatgarrenian,
bertso-famili alkartu giñan
Bitoria Eujenian,
Egoalde ta Iparraldea
maitasun beroenian;
a igarota nire biotza
zerbait baretu danian,
esker beroak emon nai dodaz
Bizkaiaren izenian.

2 Bertsozaleak txalotu nindun,
jaso ainbat bertsolarik,
orain nik ezin geiago egin
eskerrak emon besterik;
baiña munduan ez dogu iñok
zorion alai osorik,
bada askorik ez eben egin
Arrati ta Zeanurik,
baiña nik ezin iñola itxi
iñor be eskertu barik.

3 Idazlariak trebeak doguz
bertsolaritzaren alde:
M. A. eta Garmendia ta
Basarri ta Aranalde;
beste askoren artean barriz
Tele ta Radio talde,
urre gorriaz apaindu dausku
bertsolarien sorkalde,
zuek egiña bertso batekin
ezin ordaindu debalde.

4 Bai, Etxaluze, egi bikaiña
zuk bertsotan diñozuna,
orrenbestera ez da sakontzen
zertxobait argi ez dana.
Gure Jainkoak emona dogu
bakotxaren altasuna,
eta munduan danok dogun lez
egin bear bat astuna,
andiena da altasun orri
emotea erantzuna.

5 Poz-atsegiñez ikusi eben
argitan nire begiak
bertsolaritza aupatuteko
aurretik agintariak;
baita eskaindu bertsolariai
ikusgarrizko sariak,
Jaunari esker gaur egun bere
badaukaz gure erriak
antolatzaile, agintari ta
entzule agurgarriak.

6 Egun andi bat igaro neban
anai-arreba artean,
eta betiko eukiko zaituet
biotz barruko golpean;
baita eskertu euskaldun danok
biotza bete-betean,
ia guztiok alkartzen geran
barriz datorren urtean,
nik beintzat agur egiten dot gaur
neu joateko ustean.


7 Datorren urtez omentzekoak
Iraola ta Goiburu,
bi oneik dira aurten autuak
egun andi orren buru.
Zuek izango zarie jainko
ta gu guztiok aingeru,
aldi estua da ori baiña
egon zaitezte seguru:
zuen anaien eskolta ona
izango'zue inguru.

Pelotea


- 1 Pelotea da joko garbi bat
emen egin zana sortu,
ta orretzaz be gure erriak
badau zergaitik arrotu.
Mundu guztira zabaldukan
gaur egiten dau jarraitu,
eta amaitu bear badau be
munduarekin amaitu.

- 2 Nik banekian neu enintzala
ez pelotari andia,
baiña jokoa eroateko
baneukala pikerdia.
Naita sarriten irabazteko
bota bear izerdia,
pikerdia da pelotan bere
ia meritu erdia.

- 3 Al dana egin bear dogun lez
sasoian gagozanean,
ori betetzen saiatu nintzan
lanean nai kirolean.
Urte askokin nago gaur eta
aurkitzen naz eziñean,
neuk egindako apurtxo ori
jarri nai dot papelean.



Anjelus errezatzen, pelota-partidu baten.



Pelota-txapelketa bat irabazi ondoren. Ezkerretik, atzean, neu eta Zelaia; beean, Jose Miguel, Ana Mari eta Pedro Mari, nire seme-alabak.

- 4 Bizitzan nire egin bearra
ondo bete dot al dala,
naita lepoan eroan bear
kurutza astun itzala.
Guztien bistan egiten dot gaur
garai ikurraren gala,
ondorengoak esan ez daien
putz utsa izan nintzala.
- 5 Partiduetan egiten neban
taktika nai dot azaldu:
ezker ormara baztertu eta
zabalez justu zabaldu.
Pelotariak egin bear dau
bera ñnoz be ez saldu,
eta eskuan dagon pelota
ganora barik ez galdu.
- 6 Ondo dakigu gure pelota
kirol gizonkia dala,
amabietan gertatzen bazan
anjelus egiten zala.
Gaur ikusten da oitura zar au
zertxobait galtzen doiala,
ta galtzen bada oitura zar au
ez dogu galtze makala.
- 7 Pelotari be izandua naz
naita golpe gitxi euki,
indartsuago ziran tartean
moldatzen nintzan poliki.
Ta nai ez izan goiko maillako
Retegi edo Beloki,
bitrinatxoa beterik daukat
izanaren gomutaki.

8 Partiduetan egin bear da
ogeitabirarte lana,
ta garaille da muga ortara
lenen aillegatzen dana.
Emen tantua izaten dan lez
beti azkenengo *buena*,
garaillea da ogeitabira
lenen aillegatzen dana.

Astoa

- 1 Eskaria dot bertso batzuek
astoi ateratzeko,
baiña astorik ez dot euki ta
asmatu egin beariko.
Lau ankakoak dira astoak,
anka bikoak be asko,
txarrena dago asto izan da
gizon-izena badauko.

- 2 Astoi iñoz etxako emon
merezi dun meriturik,
baiña gizonen serbitzurako
ez dago bera lakorik.
Arriskutik be urrunduko da
iñon bada arriskurik,
eta iñoz be ez da gelditzen
elmugara eldu barik.

- 3 Perietan be ez da ikusten
gaur egun ia astorik,
ekolojistak ez dabe egin
bere alde lan askorik.
Olan badoia galduko jaku,
ez dago ortan dudarik,
emen bertsoak faltau ez daiten
bere alde abisurik.

- 4 Naita bidean doala sartu
laiño itxu nai lanparra,
gau ilunez be betetuko dau
bai bere egin bearra.
Belarrietan daukazan legez
brujula eta radarra,
nai ez ikusi aurkituko dau
bere kortako baztarra.
- 5 Begira daigun bere ereduz
zer dogun gure astoa:
naita batzukin pentsu ona jan,
beste batzukin lastoa.
Ta naita bere uzaba izan
markes ta señoritoa,
astoak bardin serbituko dau
markesa nai ijitoa.
- 6 Asto apala, asto jaiο ta
ezer ez estudiantu,
beti on utsa egin naiean
naita tratu txarra artu.
Bere korotzak egitean be
badauka ainbat meritu:
zulo biribil-biribiletik
laukiak egiten ditu.
- 7 Gizonak eta astoak eta
baita beste abereak,
eskubide ta egin bearrak
doguz baktotzak bereak.
Baiña indarrak jartzen ditun lez
bere aldeko legeak,
gizonak bere murrizten dituz
astoen eskubideak.

- 8 Ikusgarria bein merkatura
joan zanean jazoa:
bere lagunak an ikustean
egin eban eraso.
Gogoratu zan egun au zala
jaia ta egun gozoa,
naita au izan uzabarentzat
gutziz arrabioso.
- 9 Naita kargakin eldu zanean
asto lagunen ondora,
lau brinkorekin bota ebazan
arrautzak ta kantinplora.
Otzara eta bastea be bai,
traste danak ankaz gora,
ta bere asto lagunarekin
antxe izan zan gustora.
- 10 Astotxo ori biztu zanean
galopez ta arrantzaka,
or da uzaba bere atzean
zentella ta arraioka.
Baiña astoak erakutsirik
atzea eta bost anka,
jai artu eban axe zala ta
astoaren *La Palanca*.(1)
- 11 Astoarena ontzat artzeko
uzaba dan lez itxua,
gaiztakeritzat artzen dautso ta
murrizten dautso pentsua.
Baiña astoa jatorriz dan lez
gutziz borondatetsua,
bere garaian an agertu zan
asto-jolasen frutua.

- 12 Mundu onetan astoak beti
izan bear dau morroia,
baiña astoak bere badauko
batzuetan errazoia.
Ta aintzat artzen ez badozue
argi esatera noia
astoak bere agertu bear
dabela bere sasoa.
- 13 Nagusi jauna, zeuk be ikusi
zentzunez unetxo baten,
ta ez ikasi astoa baiño
astoagoa izaten.
Astoai bere bakean itxi
euran jolasak egiten,
morroi apalen arraza ori
betiko galdu ez daiten.

Astoak ugazabari diñotso:

- 14 “Uzaba jauna, asarre zagoz
nigaitik sarri askotan,
eta beste bat erosi zeutzat
orrela izatekotan.
Nire anaiak izango dozuz
Abadiñon San Blasetan,
Corte Inglés-en ez dagoz eta
ezta lau milloi pezetan.
- 15 Astoa naz ta nik egin neikez
batzutan gauza okerrak,
baiña zugandik ez dodaz artzen,
uzaba, tratu ederrak.
Batzuetan, bai, merezi dozuz
alabantza ta eskerrak,
beste batzutan merezi dozuz
atzeko putz ta uzkerrak”.

16 Mundu onetan gauza guztiak
dauken lez bere garaia,
astoak bere antolatzen dau
sasoian jolas alaia.
Baiña guztiak dauken beraren
asiera ta amaia,
urrengorarte agur egiñaz
amaitu zan asto-jaia.

(1) *La Palanca* Bilboko kabaret baten izena da.

Euskerazale

- 1 *Euskerazale* sortu zanetik
aurten ogetabost urte,
eta ogetabost urte ontan
lan zuzen ta zailla bete.
Egun aitako berbaldietan
entzule artu nun parte,
a entzun eta artega nago
neurea agertu arte.

- 2 Gure euskera danon ganetik
euskerea izan daiten,
zuzendaritzan dagozanari
nator oiu bat egiten.
Erri-euskera baiño ez dakit
ta enator irakasten,
bakarrik nator neure barruko
erexitxoa esaten.

- 3 Ama Euskerak iraun dagian
indar danak bear ditu,
bere semeok egin gaitezana
Ama zaintzeko alkartu.
Anaiok, geure ardura ontan
geu ezin bagara aitu,
Ama Euskerak ta istoriak
danok juzgatuko gaitu.

- 4 Nik ez, ez diñot bizkaierea
ederrena dala, baiña
bai esan neike benetan dala
oso leuna ta liraiña.
Nai eta egin barrizaleok
baztertuteko kanpaiña,
erriarentzat benetan dogu
egokia ta apaiña.
- 5 Guztiok gagoz era guztiak
bear direala batu,
orretarako bearrena da
erri guztiena artu.
Oiñarria da lengo zarra ta
ori ez dagigun aztu,
ta aberastu bear doguna
oiñarritik aberastu.
- 6 Gure euskerak igaro eban
benetan aldi larria,
baiña kaleak ukatu arren
jaubetu zan baserria.
Orain kaleak, aurren jarririk,
sortu nai dausku barria;
baiña alperrik, ez bada artzen
baserriko oiñarria.
- 7 Euskera oso bat egiteko
altasunean banengo,
nire eretxiz bearren da ta
egingo neuke lenengo
euskalki danak ondo pillatu
ango, orko ta emengo,
bada guztiak pillatu ezik
osoa ez da izango.

- 8 Guztiak dabiz alkar tiraka
ta errazoia daukie,
baiña guztiak besterenari
jartzen dautse atxakie.
Indarrak beti baztertuten dau
argala eta txikie,
euskerakin or sartzen bagara
euskeraren errukie!
- 9 Sinistu danok, Euskal Erria
gura badogu bizirik,
ez daigun galdu sakraua dogun
oiñarrizko euskerarik.
Bada ezin leike legez izan
pago bako pagadirik,
euskera bera galtzen bajaku
ez dago Euskal Erririk.
- 10 Euskaldun danok zaindu dagigun
Ama Euskera maitea,
eta orretan bearrezko da
guztiok lan egitea.
Ez daigun egin geurea nausi
eta baztertu bestea,
anai maiteok, ori ez da ta
seme leial izatea.
- 11 Lurralde danok, errazoi dan lez,
zaindu nai dogu geurea,
baiña ez daigun galdu zaintzeko
eskuan dogun erea.
Bai, badakigu, zaindu bear dau
beti bakotxak berea,
danen ganetik salbau dagigun
euskaldunok euskerea.

Pazko egunez

- 1 Kristiñauok, bai dogu
gaur zergaitik poztu:
arañegun il Jesus
eta gaur da biztu.
Bere bizkundeagaz
Kristok egin ditu
zeruak zabaldu ta
mundua askatu.

- 2 Danok askatu gaituz
eriotz gogorrez,
gitxi eskatzen dausku
guztiaren ordez.
Ta eskatzen dauskun au
bete geinke errez:
alkar maitatutea,
besterik ezer ez.

- 3 Itxartuten badogu
zertxobait zentzuna,
au da gure Jesusek
agertzen dauskuna:
geugaitik ilteakin
gugan maitasuna,
eta biztuteakin
betikotasuna.

4 Itxartu egin daigun
geuk geure zentzuna,
bakotxai emoteko
bere erantzuna.
Maitatzen ez badogu
geu maite gaituna,
zer eratakoa da
gure maitasuna?

5 Abestu aleluia
danok alkartuta,
Kristok barri ederra
ekarri dausku ta:
izango gareala
il eta biztuta,
baita bizitza ontan
gutziz askatuta.

6 Bere jainkotasunez
erakutsi dausku,
gogorra izan arren
zein bide jarraitu.
Traba asko daukagu
baiña ez bildurtu,
Espiritu Santuak
argituko gaitu.

7 Jesuseren bidera
egiñik biurtu,
bertatik jarraitzeko
asmo ona artu.
Naita bide au izan
gogor eta estu,
Aitaren baratzera
zuzenduko gaitu.

Liburu andi galtsua eta txikia mamitsua

- 1 Libururako nire lantxo
nik egin neban zarratu,
baiña etzala naikoa eta
bertso geiago eskatu.
Aita Zabalak libururako
geiago bear baditu,
nire iturri ori da eta
bertsorik ezin ukatu.
- 2 Libururako bialdu neban
nire lana sobre baten,
ta erantzuna lantxo orrekin
naiko etzala betetzen.
Lan geitxoago bialtzeko ta
agertuko zala aurten,
eta geiago bialtzen dautzut
liburu au bete daiten.
- 3 Nik, bai, badaukot erreztasuna
bertso batzuk idazteko,
baiña ez dakit libururako
zer bear dan jakiteko.
Nik uste neban bai zala lana
lau bost libururentzako,
guztia eta geiago bear
iru itxuraztuteko.

- 4 Eneuke gura au esatean
iñor samindu al dala,
baiña nik diñot liburuetan
galtzu asko sartzen dala.
Itxuraz asko andiak dira
eta apaiña azala,
barruan mami gitxi badauka
¿au zer da, aita Zabala?
- 5 Liburua be egin bear da
bere neurriz itxurazko,
baiña bertsodun liburu bada
ori dogu aparteko.
Euskal kulturaren bertsoa dogu
zertxobait urre gorrizko,
ta ontzi andirik ez da bear
urre gorriz betetzeko.
- 6 Berebillik be elmugaraiño
egundo ez da elduko,
deposituan gasolena
urez nastuta badauko.
Irakurleai liburuakin
orixe jazoten jako,
liburu orrek mamia baiño
lasto geiago badauko.
- 7 Liburu askok agertuten dau
galtzua eta basoa,
aspertzen da bat nai eta izan
irakurle ganosoa.
Eta bestetik txikia bada,
mamitsua ta gozoa,
epelenak be amaituko dau
liburu oso-oso.

- 8 Euskaldunentzat gauza ederra
Auspo bertso-liburua,
kultur-arloan aberatsa ta
gaiñera ez da karua.
Diru guztiak bear dauan lez
bere leku segurua,
oso seguru aurkituten da
or gastatzen dan dirua.
- 9 Txingar bat neukan nire barruan
kabitu ezindakoa,
eta txingar au sutan jartzeko
enintzan izan naikoa.
Baiña bikote bat arkitu nun
borondate andikoa:
Muniategi errekiña ta
Aita Zabala *auspoa*.

Azken bertsoa

Emen aurrengo bertso orretan
diñot guzur bat galanta:
oneik dirala azken bertsoak,
ondakiñak dirala ta.
Baiña oraindik Basiliori
errekienik ez bota,
Basilioren motorra gaur be
martxan ta bero dago ta.

Basilio Pujanari

Basilio Pujanaren Egi batzuek aixetaratzen bertso-liburua irakurri ondoren.

1 *Egi batzuek aixetaratzen*
Basilioren emaitza,
ze gizon mota zeran jakinda
igartzen ez da ain gaitza.
Betiko eran gurpildu dozu
biotz-atariko giltza,
ze gauz ederra gizon bakoitza
zu bezain jator balitza!

2 Ugerkazelai baserritxua
Zulaibar auzo erdian,
guraso on bik maite-lekua
jarri eben alderdian.
Mundu argira etorri ziñan
zeru-emaitzen gurdian,
autuentzako bakarrik dagon
izar on giro gordian.

- 3 Seme barri bat "bildur ta poza"
guraso ez-eukientzat,
aldi atako bizi eziña
gogoan badogu beintzat.
Bederatzi aur, a ze kabia!,
maitasuna jaki-gaitzat,
ejenplu onik emon al bada
au artu bear da aintzat.
- 4 Zenbat igurtzi ta txera gozo
amak seigarren aurrari!
Ze atsegiñez amets artean
ugutz garbia edari!
Zeru-grazia zeugan zendula
izar ongilla gidari,
ez da arritzeko urtez aurrera
izatea bertsolari.
- 5 Ikastolara joan garaian
aman altzotik aldendu,
naiz altzo onek ikastolarik
ederrena ematen du!
Amak emona ain zan sagraua,
gaur arte dozu mantendu,
erdel maixuak nai eban arren
egin izan eutzun kendu.
- 6 Amasei urtez morrontza latza,
arrotza eta ligorra,
bizi bearrak ezarri dauan
nai eta ezko zigorra.
Naiz ta bizitzan eziketa au
izaten dan derrigorra,
etxetik uxa, maite-girotik
kanpo, beti da gogorra.

- 7 Ekaitza zenbat ta gogorrago
maiteago aterpea,
guda-giroan aberri-miñak
biotz barruan golpea.
Nagusi gerra-zale, morrontza,
gutzat suberte torpea,
gogoa bertsoz aseba baiña
janari eske tripea.
- 8 Ondo ezia ez dau aldatzen
aurka dagoan giroak,
bakanak dira aldakuntzetan
dabiltzan gizon eroak.
Zure irautea ain da jatorra,
epaituko du geroak,
aberri zarran alde doaz ta
zure bertsozko tiroak.
- 9 *Gernika erre, Iturri-eri,
Gure abadeak preso,
Biotza samur edo Artetxe
illargira nai dot jaso.
Naparroako illerokoa,
erbestetuen eraso,
maitasunean izketan dozuz
jarri seme ta guraso.*
- 10 Eguzkiaren brintza bezela
argia da zure lana,
biotz-taupadak mogitzen dauan
odol beroak emana.
Ain dozuz maite gure oiturak
eta izkuntza laztana!
Papel garbira ez da urtetan
biotzez maite eztana.

11 Eritxi jator askoren jaube,
bizitza iñon menpean,
urte askoko pasadizua
ezin argitu golpean.
Buru-jaubetza lortuko balitz
zuk nai zenduken epean,
ainbeste egi ezta sartuko
azaldu barik lurpean.

12 Orra amabi bertso moldatu
eusko izkuntza edarrera,
zure idazti atsegiñari
gogoz egiñaz arrera.
Nire naimenak bultzatzen zaitu
maite dozun bearrera,
bertso-langintzan maixua zara
eta jarraitu aurrera.

*Sarduy-tar Deunoro
1986-ko Iñaki Deunaren egunean*

Arkibidea

Azken arnasara arte	7
Nire bertso ondakiñak	13
Lazkao-txiki zanari	15
Bizkaiko gotzaiña	19
Tantaka	24
Lenengo jaunartzea	32
Bertsoaren bideetan	34
Arzallus eta Garaikoetxea	39
Biotz samindua	41
Gizon jator bi	51
Bilboko Kafe Antzokia	53
Arantzak	54
Urkiolan	62
Gudari zarrak	68
San Juanetan	71
Zeanuriko ermitetan	73
Ausnarketan	76
Umezurtzak lez	82
Gabonetan	84
Jesus etorri jakun	88
Eskerrak Zeanuriko omenaldian	93
Zeanuriko Andra Mari jaietan	96
Jesus Oleaga jaunari	100
Zeanuriko Txato aizkolariari	105
<i>Auspoaren auspoa</i> liburua	106
Ama Euskerari	110
Illetak	113
Meza santuan	117

Gaurko mundua	121
Balendin Enbeita	130
Balentin Berriotxo	133
Erriaren seme txarrak	136
Geure bidea	138
Bakearen alde	142
Itxaropenik ez galdu	150
Gorbeiaiko kurutzeari	154
Zeanuri	157
Gorbeiaiko artzain zarrak	164
Eskerrak emonez	167
Pelotea	170
Astoa	175
<i>Euskerazale</i>	180
Pazko egunez	183
Liburu andi galtsua eta txikia mamitsua	185
Azken bertsoa	188
Basilio Pujanari, Sarduy-tar Deunorok	189



Basilio Pujana Etxeandia, Zeanurin 1913-II-27-an jaioa, Bizkaiko bertsolaririk zaarrenetako bat degu, kantari jarraitzen dutenetan beintzat.

1936-ko gerra aurrean bertsotan asia, ixilune luzea gorde bear izan zuan gero, andik ogei bat urtera bertsolari-txapelketak egiten asi ziran arte.

Aotik aora ez-ezik, bertsoak papererazten ere saiatua da. Ala, *Egi batzuek aixetaratzen* liburua eman zigun 1986-an (*Auspoa*, 191). Gerrateko oroipenak prosaz kontatu zituan 1991-an, *Deabruak ostutako urteak* liburuan (*Auspoa*, 211). Irugarrengo onek, berriz, bertso sendo-borobillak eskeintzen dizkigu, *Oiuak* alegia, batik-bat Euskal Erriaren egoera larria begien aurrean jartzen digutenak.

Larogei ta lau urte ditu bertsolari onek. Baiña ari errekiek ez botatzeko eskatzen digu, bere motorra gaur ere "martxan da bero dago ta". Urte askoan ala izan dedilla opa diogu.

ISBN 84 89080 60 7



G